ASTELEHENEKO

# Goienkaria

2009ko maiatzaren 11 > Astelehena > VII. urtea > 232. zenbakia > Euro 1

www.goiena.net

"Euskal Herrian gehiengoak onartuko duen proposamen politikoa behar da"

**Xabier Zubizarreta**
Ezker Abertzaleko kidea > 08



**G2a** Magia Mostra, truku bariko arrakasta > 29

**ARRASATE** Jangela prestatzeko asmoa, bakarrik dauden nagusiendako > 15

**BERGARA** Udaberriko kontzertua jai bihurtuko du Musika Eskolak > 16

**LEINTZ GATZAGA** Landagipuzkoa azaltzera joango da gaur herrira Markel Olano > 20

**ELIZA** > KANONIZAZIO PROZESUA

## Arizmendiarrieta eta haren figura, lagunen ahotik

**ARRAZOIAK**
Kooperatibismoaren sorreran laguntzaile izan zituenek santu egiteko arrazoiak ikusi dituzte

**PERTSONA DOIA**
Arizmendiarrieta zelakoa zen azaldu digute haren lagun Ormaetxeak eta Gorroñogoitiak > 02-03



**IKUSMINA** Jende asko bildu zen Jokin Zaitegi plazan sutearen keak erakarrita. JULEN ELORTZA

## Zauritu arinak, tentsioa eta ikusmin handia, Arrasateko sutean

Zapatuan, 21:00ak aurretik piztu zen sua Jokin Zaitegi plazan, etxebizitza bateko logelan; eta suhiltzaileek 22:30ak arte ezin izan zuten itzali. Bederatzi lagun ospitalera eraman zituzten –dagoeneko alta hartu dute– eta tentsio handia bizi izan zen. Kalteak ere badira. > 04

**EKONOMIA** > KRISIA

## Neurriak hartuta ditu Eroskik

Gezurtatu dute soldatak jaisteko asmoa dutenik > 06

**FUTBOLA** > EMAKUMEAK

## Mondra, Gipuzkoako txapeldun

Mondrako neskek Soraluze garaitu zuten zapatuan > 25

**OÑATI** > BABES OFIZIALA

## San Martingo etxeak, eguaztenean zozketara

Babes ofizialeko 45 etxebizitza zozketatuko dituzte 520 eskatzaileen artean. Kiroldegiko pilotalekuan egingo dute, 18:00etan, eta zozketa irekia izango da. > 18




Atxagaren liburua opari. Nahi?

Zoaz 7. orrialdera

**AURKIBIDEA**

**Debagoiena** > 04
**Ekonomia** > 06
**Auzoak** > 07
**Elkarrizketa** > 08
**Iritzia** > 10
**Herriak** > 11-20
**Kirola** > 21-28
**Kultura** > 29-32
**Sailkatuak** > 34-35
**Telebista-irratia** > 37
**Berri-zakua** > 38-39
**Azkena** > 40






**ELIZA** > KANONIZAZIO PROZESUA

# Arizmendiarrieta: herritarren apaiza santu egiteko bidean

**ARRAZOIAK** Kooperatibismoaren sorreran kolaboratzaile izan zituenek nahikoa arrazoi ikusi dute santu egiteko

**PERTSONA DOIA** Parekotasunaren aldekoa zen eta berdintasunaren alde egin zuen lan erlijioan oinarrituz

**PROZESUA** Dokumentazioa pilatu eta prozesuaren lehen zatia amaituta, Santuen Gairako Kongregazioak du hitza




**IRATI AGIRREAZALDEGI** > ARRASATE

Jose Maria Arizmendiarrieta, Arrasateko kooperatiben mugimendua sortu zuen apaiza, santu egiteko lehen fasea itxi da asteon. Bildutako informazioa Erromara bidali, eta orain Santuen Gairako Kongregazioak erabakiko du Arizmendiarrieta santu bihurtu ala ez. Kooperatiben hasiera hartan gertuko izan zituen eta santu egiteko prozesuan lanean diharduten Alfonso Gorroñogoitiak eta Jose Maria Ormaetxeak berba egin digute Arizmendiarrietaren irudiaren eta santutze bide honen gainean.

Hainbat arrazoi izan dira euren gidari Jose Maria Arizmendiarrieta santu egiteko bidea hastera eraman dituenak. "1999an Arizmendiarrietaren gorpuzkinak Aldaiko kanposantutik San Kristobalekora aldatu zirenenean bere panteoian ekitaldi berezia egin zen. Egun horretan, Gorroñogoitia, Larrañaga eta hirurok afaria egin genuen eta han pentsatu genuen Arizmendiarrietarengatik guk egin ezean inork ez zuela ezer egingo, ez zelako komentu bateko partaide eta ez zeukalako erlijio maila gorenik. Hortaz, kontsultatu genuen hainbat lagunekin ea egoki irizten zioten beatifikatzeari edo kanonizatzeeari. Elizako adituekin ere batzartu ginen eta ikusi genuen nahikoa oinarri sendoak zituela bide horri ekiteko", esan digu Ormaetxeak.

**ERREZATZEN ZION NOTARIOA**

2005ean hasi eta lau urtean egin beharrekoa egin dute, ez ordea, aurrez lanik egin gabe. Alfonso Gorroñogoitiak gogoratu digu hamar urte pasa direla lanean hasi zirenetik. "Hasi ginen Arizmendiarrietaren bertuteen gainean uste sendoa geneukalako eta jende garrantzitsu askok eskatzen zuelako. Jose Maria Arizmendiarrietak harremana izan zuen Espainiako kooperatiben estatutuak onartzen zituen Jose Luis Velasco Alvarez notarioarekin. Hemen izan zen behin gonbidatuta eta Otalorako sinadura liburuan idatzi zuen Arizmendiarrieta gizon berdingabea zela eta Arrasaten eta kooperatibetan egindakoak ez zeukala neurririk, eta horretaz gain kolaboratzaileoi aurpegiratu zigun oraindik Arizmendiarrietaren beatifikazio prozesurik ez hasi izana. *Nik santutzat daukat eta santu balitz moduan errezatzen diot eta elizari eskatzen diot santu egin dezan*", esan zuen.



Alfonso Gorroñogoitia eta Jose Maria Ormaetxea Batikanoko plazan; hara eraman dute dokumentua eta han erabakiko da Arizmendiarrieta santu izan ala ez. TU LANKIDE

**BERRIKUNTZAREN IRUDIA**

Gurean jakinak dira Arizmendiarrietak egindako lorpenak, baina apaizaren irudi gizatiarra azpimarratu dituzte Gorroñogoitiak eta Ormaetxeak: "Niretzat eta arrasatear guztientzat Arizmendiarrieta berrikuntzaren irudia da. Gerra Zibila amaitu eta bi urtera etorri zen Arrasatera eta herria erabat deseginda zegoen ez bakarrik fisikoki, baita alderdi moraletik ere. Etorri zen herriari bultzada bat ematera eta jendearen animuak altxatzera. Lanaren eredu zen, pertsona doia, eskuzabala, alaia, gogotsua… eta ezaugarri horiekin guztiekin bere morala, etika eta lanaren eta elkar ulertzearekin bitartez bereganatu egin gintuen", dio Ormaetxeak. Esan digu baita ere erlijo uste sendoetan zuen irmotasuna: "Parekotasunaren alde zegoen eta ez zuen jasaten familia aberatsak eta pobreak egoterik; etxea zutenak eta ez zutenak; ikasketak egin zitzaketenak eta ezin zutenak; eroso bizi zirenak eta inongo erosotasunik ez zutenak. Berdintasuna bilatzen zuen erlijioan oinarrituz".

Gorroñogoitiak ere gazterik ezagutu zuen, 16 urterekin, eta beretzat "erreferentzia ordezkaezina" dela dio. "Guri eskaini zigun bere lana eta eman zigun bere kontzientzia eta izpiritua lanean hezteko. Erakutsi zigun bizitza, lana eta elkartasuna ulertzeko modua. Elizaren doktrina soziala zabaldu zuen. Gizon ekintzailea zen eta gu bizitza osorako markatu gintuen. Bere errotzearengatik, ahaleginarengatik eta gugan izan duen eraginarengatik santu izatea merezi du".

**HASERRE EGINGO LIEKE APAIZAK**

Santu izendatuz gero, "santu ezohikoa" litzatekeela diote, "ez ditu santuen perfilak betetzen. Bere apaiz-bokazioa gizakiaren eta herriaren zerbitzurako erakundeak sortzera bideratu zuen". Prozesua abiarazi zuten jendeak eskatutakoa eta euren usteak bat zetozelako, baina aurrez ez zuten pentsatu santu egiterik. "Santuen beste estereotipo batzuk geneuzkan. Arizmendiarrieta ezberdina zen", dio Gorroñogoitiak.

Arizmendiarrietarekin ere ez zuten inoiz hitz egin santu egitearen kontuaz, "orduan asmorik ez geneukan eta hain zen gizon apala horrelakorik aipatuz gero haserre egingo liguke gainera".

**PROZESU LUZEA**

Gorroñogoitiak azaldu digu zuzenbide kanonikoaren arabera, santu bat ez dela gizarte ekintza zehatzak egiten dituena, baizik eta maila gorenean hiru teologia bertuteak landu dituena: fedea, esperantza eta karitatea. Horiek zabaldu eta garatu dituena modu bikainean. Horretaz gain, mirari bat egin behar da beatifikatzeko eta bi santu izateko.

Arizmendiarrietaren bizitza, lana, idatziak… dokumentuetan jaso eta Erromara bideratu ostean, ikusi beharko da santu egiteko modukoa den ala ez.

"Orain, Erroman beste bi edo hiru urte beharko dira baliotasun dekretua eman arte eta esan arte baldintza nahikoa dituela; eta mirariren bat egin beharko da prozesua amaitzeko. Prozesua oso luzea da. Lehen zatia nahiko azkar egin dugu Caja Laboralaren, Unibertsitatearen eta kolaboratzaileen laguntzaz. Santu egiteko prozesuak gehienetan erlijio kongregazioek abiatzen dituzte edo izendatutakoak kongregazioen fundatzaileak dira edo elizan maila gorena dute, baina kasu honetan apaiz laguntkidea baino ez zen", azaldu digu Ormaetxeak.

Gorroñogoitiaren esanetan, "Batikanoan 400 eskari daude eta urtero batez beste 20 aztertzen dira prozesu guztia egin ostean. Hortaz, beste 20 urte beharko lirateke, baina hori estimazio bat besterik ez da. Bidean mirariren bat gertatuko balitz, zerrenda horretan aurreratuko litzateke beharbada. Zerrendan zein postutan dagoen edo zenbat urte beharko diren ez da garrantzitsuena, ordea. Orain, dokumentazio guztiaren laburpena egin behar da, gero santuen kongregaziora eramateko eta lau urte pasatuta ematen zaio, edo ez, balio juridikoa".

Prozesua amaituta ez omen dute ikusiko, "baina betetzea hunkigarria litzateke, merezitako ordaina jasoko luke. Gipuzkoako Gotzaindegiarendako eta Arrasaterendako ere garrantzitsua izango litzateke herriko apaiz bat, besteendako lan egin zuena, aldare gorenetara iristea", dio Alfonso Gorroñogoitiak.

Ormaetxearen esanetan, "sekula ezin izan genion ordaindu guregatik eta herriarengatik egindakoa. Diruz ezin zitzaion ordaindu, oinarrizkoarekin bizi baitzen. Hortaz, ahaleginarekin ordaindu nahi genion. Izan ere, ordu askotako lana izan da. Berak jainkoak eskatutakoa bete zuen eta guk jaungoikoaren legearekin itzuli nahi diogu jasotakoa".

**"Lanaren eredu zen, pertsona doia, eskuzabala, alaia eta gogotsua eta ezaugarri horiekin bereganatu egin gintuen"**

**"Kanonizazio prozesua amaituta ez dugu ikusiko, baina betetzea hunkigarria litzateke, merezitako ordaina jasoko luke horrela"**

BIOGRAFIA

## Jose Maria Arizmendiarrieta

**Jaio:** Markina, 1915eko apirilaren 22a.
**Hil:** Arrasate, 1976ko azaroaren 29a.

Markinako Iturbe baserrian jaio zen 1915ean eta 61 urterekin hil Arrasaten. 1936ko gerran kazetari jardun zuen *Eguna* egunkarian eta preso eduki zuten Larrinagako espetxean. 1941ean apaiztu eta Arrasatera bidali zuten.

Berak ereindakoak dira MCCren eta Mondragon Unibertsitatearen haziak eta lehen pausoak gogoan dituzte orduan kolaboratzaile izan zituenek. Horrela laburbildu du ibilbide hura Jose Maria Ormaetxeak: "Gazteongana gerturatu zen lehenengo. Ikusi zuen nola Arrasaten bi talde zeuden: batetik Union Cerrajerako aprendizak eta bestetik lanbide heziketarako sarbiderik ez zutenak euren enpresek ez zutelako eskolarik; hortaz, erdiek ez zeukaten industria maisuak izateko laguntzarik. Horregatik sortu zuen eskola profesionala, parekotasuna eta aukera berdintasuna egon zedin.

**PERITU INDUSTRIALAK**

Ondoren, ahalegina egin zuen peritu industrial ikasketak egin genitzan, orain injineru tekniko ikasketak direnak. Zaragozako eskolarekin hitz egin eta lortu zuen eskola profesionalean eskolak jaso eta azterketak Zaragozan egitea. 1954an pentsatzen hasi zen errazagoa zela izaera humanodun enpresa berriak sortzea elkarte anonimoak eraldatzea baino. Hortik enpresa eredu berri bat sortu zen kooperatibismoan lehen pausoak emanez. Bere inguruan 150 gazte inguru elkartu ginen, baina kooperatibismoa eratzean aukeraketa bat egin zen eta bost zuzendari ginen eta besteak langileak. Eskola sortu zuen lehenengo, lehen kooperatiba gero, Caja Laborala ere, eta Lagunaro bezalako enpresen sorreran ere izan zuen eragina, baita Lana (Leintz eta Aramaioko Nekazarien Alkartasuna) eta Eroskiren aurrekoak eratzen ere".

**BEHARTSUEN ZERBITZURA**

"Hark egindakoa jakinekoa da. Hainbeste gauza egin ditu gorazarre guztiak txiki geratuko lirateke berarendako. Kooperatiba mugimendua berak sortu eta berak emandako izpirituaren fruitu sakona da. Beti behartsuenen zerbitzura, hark kooperatibak hasi baitzituen lan egin behar zelako", dio Gorroñogoitiak.



**EZBEHARRA** > SUTEA

# Zauritu arinak, kalteak, tentsioa eta ikusmin handia, zapatuko sutean

21:00ak aurretik piztu zen sua, baina 22:30ak arte ez zuten itzaltzen bukatu suhiltzaileek

Bederatzi lagun ospitaletara eraman zituzten, nahiz eta gero alta eman zieten



Suhiltzaileek eskailera erraldoia erabili zuten erreskaterako. JOSETXO ARANTZABAL



Bederatzi lagun ospitaletara eraman behar izan zituzten. JOSETXO ARANTZABAL

**IKER BARANDIARAN** > ARRASATE

21:00ak baino lehenago piztu zen sua Jokin Zaitegi plazako etxebizitza baten bigarren solairuko logela batean, oraindik ezagutzera eman ez diren arrazoiengatik.

Bizilagun batzuek erre usaina antzeman zuten eta kezkatuta kalera jaitsi ziren. Handik gutxira, keak eskailera osoa hartu zuen eta eraikinetik gora ke laino handi bat irteten hasi zen. Udaltzainak, ertzainak eta suhiltzaileak elkartu ziren Garibai etorbidean. Une horretan nahasmen eta tentsio uneak bizi izan ziren. Atartea hutsik zegoela uste zuten batzuek, hirugarren eta laugarren solairuetakoak ezin ziren etxetik jaitsi, eta batzuk oihuka hasi ziren, baita plazan elkartutako jendea ere.

ESANAK

**"Ez nuen uste gaur egun sute baten halako arriskua pasa zitekeenik; asko kosta zitzaien guri ohartaraztea"**

**Kaltetutako bizilagun bat**

**BEDERATZI LAGUN OSPITALETARA**

Azkenean, suhiltzaileek hainbat bizilagun erreskatatu behar izan zituzten, erretako etxebizitzan bizi zirenak eta gaineko beste batzuk. Azkenean, Eskualdeko ospitalera eraman zituzten bigarren solairuko hiru lagun eta adineko bi bikote. Horrez gain, beste bizilagun bat eta udaltzain bat Gasteizko Txagorritxu ospitalera; guztiak kea irensteagatik eta ahul zeudelako. Dagoeneko guztiei eman diete alta.

**KALTEAK ETXEBIZITZETAN**

Sua ezin izan zuten guztiz itzali 22:30ak aldera arte. Atarteko bizilagun guztiek gaua etxetik kanpo pasa behar izan zuten: gehienek familiakoen edo lagunen etxeetan; eta beste bost familia Mondragon Hotelean.

Kalteei dagokionez, sutea piztu zen etxebizitza oso egoera eskasean dago; gainontzean, azpiko etxebizitzan ur asko sartu da; eta hirugarrenean ere eragin du. Gainera, eskailera eta atartea ere kaltetuta daude. Orain peritoek zer esango duten zain daude bizilagunak.




Egubakoitz arratsaldean Natale Landari Arrasateko Herriko plazan egin zioten ongietorriaren une bat. JOSETXO ARANTZABAL

**POLITIKA** > 18/98

# Natale Landari ongietorria egin zioten barikuan herrian

18/98 auziagatik urte eta erdi espetxean pasa ostean, epaileak absolbitu egin du arrasatearra

**IKER BARANDIARAN** > ARRASATE

Natale Landari ongietorria egin zioten egubakoitzean Arrasateko herriko plazan. 18/98 auzia dela-eta, 2007ko azaroaren 30ean atxilotu eta espetxeratu zuten, epaileek ihes egin zezakeen arriskua argudiatuz. 11 urteko kartzela zigorra ezarri zioten, eta apirilaren 28an askatu zuten arte, Soto del Realen (Madril) eta Curtisen (A Coruña) egon da espetxeratuta. Joan den aste bukaeran eman zen jakitera epaileek absolbitu egin zutela.

Ekitaldian herriko hainbat taldek eta lagunek opariak eman eta bertsoak abestu zizkioten. Bukaeran, Landak azpimarratu zuen nahiz eta kalean egon, ez dela "aske sentitzen, herria ez delako askatasunean bizi". Eta herritarrei eskatu zien "eraikuntza nazionalean" jarraitzeko.

**ELKOROK BISITA IZAN ZUEN**

Bestalde, Jose Luis Elkorok familiaren bisita izan zuen zapatuan Soto Del Real espetxean.

Familiakoek esan digute bare ikusi zutela, nahiz eta familiarengatik eta lantegiko egoerarengatik arduratuta dagoen. Astelehenetik, epailearen aurretik pasa zenetik, zapatura arte ezin izan zuten berarekin berba egin.

> INDARKERIA

### Kontzentrazioa deitu dute gaurko, Irungo erailketa salatzeko

Arrasateko Emakumearenganako Indarkeriaren aurkako plataformak kontzentrazioa deitu du gaurko, astelehena, Arrasateko Herriko Plazan, 19:00etan.

Salatu gura dute herenegun Irunen jazotako gertakaria. Yazmin Rodriguez 37 urteko emakumea hil egin zuen labankadaz ustez haren bikotekide ohiak, 37 urteko gizon batek. Gainera, Rodriguez hiltzeaz gain, 49 urteko gizon bat ere larri zauritu zuen.

> ERAKUNDEAK

### Maria Silvestrek ordezkatu du Izaskun Moiua Emakunden

Emakundeko presidente Izaskun Moiua Maria Silvestrek ordezkatu du. Moiua oñatiarrak 2005eko uztailaren 8an hartu zuen erakunde horretako zuzendari kargua. Horren aurretik, baina, Emakundeko idazkari nagusia izan zen 1999tik 2005era arte.

Maria Silvestre kataluniarra Bilbon bizi da azken 20 urteotan. Deustuko Unibertsitateko Soziologiako dekanoa da, besteak beste.

**Vicente Huitzi** > UNEDeko Udako Ikastaroen koordinatzailea

# "Krisi garai hauetan guztiok hezkuntza handiagoaren beharra izaten dugu"

JASONE ZABALA > BERGARA

**Bergarako UNEDek VIII. Uda Ikastaroen barruan egitarau berria aurkeztu du; hain zuzen, eskaintza pluridiziplinarra diseinatu du, eta akademia eskaintza handitu. Udako Ikastaroen koordinatzaile Vicente Huitzirekin hitz egin dugu ikastaro horien gainean.**

**Zer dela-eta zabaldu duzue eskaintza?**

Arrazoi garrantzitsuena da krisi garai hauetan guztiok hezkuntza handiagoaren beharra izaten dugula; bai norberak lan egiten duen arlo profesionala hobetzeko edo lan aldaketa etortzen denerako behar den moduan prestatuago egoteko.

Hortik aurrera, beste alde garrantzitsu bat da unibertsitatean dabiltzanen formazioa hobetzea eta komunikabideetan agertzen diren gaiez aparte, beste gai batzuk lantzeko aukera ematea gura duen edozeini.

**Dauden ikastaro guztietatik zeintzuk nabarmenduko zenituzke ?**


Vicente Huitzi. GOIENKARIA

Humanitate arloan badago ikastaro interesgarri bat Txinari zuzenduta dagoena; ikastaro pluridiziplinarra da. Ikastaro hori oso egokia da Ekialdeko kulturan interesa dutenendako eta baita lan kontuengatik Txinan daudenendako edo bertara joan behar dutenendako; hango hizkuntza jakiteaz gain, han zelan moldatu jakiteko. Aipatzekoa da, baita ere, euskal kulturari buruz egiten den hausnarketa; euskal kultura besteetatik bereizten duten elementuen hausnarketa ikuspegi pluridiziplinarretik egitea.

Bestalde, *coaching*-aren mundua oso garrantzitsua eta beharrezkoa da gaur egun bizi garen gizartean; gaur egun XIX. mendeko irizpideekin lan egiten delako oraindik, oso hierarkikoak dira gauza asko. Amaitzeko, literatura tailerrak aipatuko nituzke; hemen daukagu duela urte batzuetatik euskaraz idazten ikasteko Idazle Eskola. Euskaraz eskaintzen ditugun ikastaroak gutxi dira; horregatik, horrelako tailerrak espainolera ere zabaldu nahi izan ditugu.

**Zeini zuzenduta daude horrelako ikastaroak?**

Arlo ezberdinetan lan egiten duten profesionalei, arlo batzuetan hobetu nahi duten unibertsitateko ikasleei eta, orokorrean, beste gai batzuen inguruan interesa duen jendeari.

**POLITIKA** > ALTERNATIBA ERAKUNDE BERRIA

# EBko Arrasateko bi zinegotzi eta Oñatiko bat, Alternatiban

Alternatibako kideen esanetan, filiazioa aldatzea erabaki duten kargu publikoek 'legitimotasun osoa' dute zinegotzi izaten jarraitzeko

LEIRE KORTABARRIA > ARRASATE

Oraingoz, Debagoieneko hiru zinegotzik egin dute bat Alternatiba erakunde politiko berriarekin, Ezker Batua alderditik banandu den korrontearekin: Arrasateko Ander Rodriguezek eta Joseba Ugaldek eta Oñatiko Manu Egañak. Rodriguezen esanetan, hemendik aurrera jarraituko dute "herririk herri eman behar diren pausoak ematen".

Bestalde, kontrakorik ezean, Ezker Batuan jarraituko dute Aretxabaletan, Eskoriatzan eta Oñatin zinegotzi banak. Ander Rodriguezen iritziz, Alternatibarekin bat egin duten zinegotziek "legitimitate osoa dute" zinegotzi izaten jarraitzeko.


Arrasateko zinegotzi Ander Rodriguez eta Joseba Ugalde. TXOMIN MADINA

**"EZKERRA AHULDU"**

Ezker Batuko kideek zinegotzi horiek legealdia bukatu artean alderdiari dagozkiola esan dute, hala aukeratuak izan zirelako; eta EBn orain arte moduan lanean jarraituko dutela. Ezker Batuko Juan Luis Merinoren esanetan, "penagarria" da "ezkerra banatzen eta ahultzen" joatea; eta aldarrikatu zuen EB, Alternatiba ez moduan, federalista dela.

**etxeko leihotik**


**Inazio Arregi** > zuzen@goiena.com

## Zabor elektronikoa

Ordenagailuak badauka zerbait majikoa, ezin da hori ukatu. Sasoi bateko gizon-emakumeei paper inprimatuaren miraria ulertzea zaila gerta zekiekeen bezala, guretzat ere anabasa ulergaitza da wi-fi, uhin eta mikrotxipen mundua.

Ordu asko ematen ditugu ordenagailuaren aurrean lanean. Batzuetan, basoen biziraupenerako gomendio moduko bat txertatzen dugu bidaltzen ditugun mezuetan: *Ahal baduzu ez inprimatu mezu hau; ingurumena gure esku dago*. Naturari mesede egin nahi izaten diogu, ustez neutroa, edo zalantzarik gabe askoz ekologikoago den informazio bide berriagoa erabiliz.

**"Paperak ala sareak eragiten dio kalte handiagoa naturari?"**

McAfee etxeak berriki egindako azterketa batek zioenez, 2008ko sareko spamek 2,4 milioi etxebizitzen edota 3,1 milioi autoren pareko energia kontsumitu zuten. Hori spamek bakarrik. Zein ote da orduan sarearen jarduerarako behar den energia kontsumoa? Eta zein, naturari benetan eragiten zaion kaltea, plastikoak, pilak eta mikrotxipak ere kontuan hartuta?

Orain bai ez dakigula zeinek eragiten dion kalte handiagoa naturari; paperak ala sareak; eta AHTk ala hormigoizko autobideek?.

Inork erantzunik badauka, bidal diezadala mesedez. Eskertuko da.

**> Joan da Ibarretxe**
**Gizon zintzoa, langile borrokatua da Ibarretxe. Brunete mediatikoaren biktima izan da. Gaur, baina, etsai politikoek ere onartzen dizkiote ekonomia, euskara eta beste hainbat alorretako lorpenak**

**> Etorri zaigu Lopez**
**Brunete politikoa alde izan du Patxi Lopezek. Ez dut aurreiritzirik beragan. Ez zait gustatu orain arteko bidea, baina oraindik egiten utzi beharko diogu, badaezpada. Lau urte ditugu aurretik bere jarduna epaitzeko.**

**FORMAZIOA** > IKASTAROAK

# Prestakuntza plan berria martxan, boluntarioendako

Ikastaroak hainbat herritan egingo dituzte doan; Arrasaten eta Bergaran, esaterako

JASONE ZABALA > BERGARA

Boluntarioentzat beste prestakuntza plan bat antolatu dute Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politikako Departamentuak eta Gizalde Gipuzkoako boluntarioen elkarteak, boluntarioen elkarteekin eta irabazi asmorik gabeko elkarteekin elkarlanean. Guztira hamabost ikastaro egingo dituzte maiatzetik urrira hainbat herritan, eta doan izango dira.

**MAIATZETIK URRIRA**

Hauek dira maiatzetik urrira emango diren ikastaroen izenburuetako batzuk: Komunikazio eta gizarte trebetasunak; Esku-hartze tresnak laguntza harremanetan eta beste.

Ikastaroak, besteak beste, Bergaran eta Arrasaten emango dira. Izena emateko, Gizaldeko 943 42 80 13 telefonoaren edo *gizalde@gizalde.com* e-postaren bitartez egin daiteke.


Argazkian Arrasateko Musakola auzoan dagoen Hiper Eroski. GOIENKARIA

**KOOPERATIBAK** > EROSKI TALDEA

# Krisiari aurre egiteko neurriak hartuta dituela dio Eroskik

Eroski Taldeak esan du ez duela soldatak jaistea planteatu, eta hedabideetan agertu diren albisteak gezurtatu egin ditu

**GOIENKARIA** > ARRASATE

Eroski Taldeak ez du aparteko ordainsariak kentzeko, ez eta soldatak jaisteko asmorik krisiaren eraginari aurre egiteko. Horrelaxe jakinarazi du taldeak, azken egunotan komunikabide askotan agertu diren albisteen aurrean.

Albiste horiek ziotenez, Eroski Taldeak bazkideei soldatak jaisteko asmoa zuen, aurtengo aparteko ordainsariak kenduta, eta egunotan hori jakinaraztekoa zen. Hori egiteko modua izango zatekeen, beti albiste horien esanetan, bazkide-partaidetzagatik bazkideek urtarrilaren 31n jaso zuten dirua kapitalizatzea.

Horren arrazoietako bat, informazio horien arabera, zen Eroskik Caprabo supermerkatu katea erosi izanak, 2007an, oraindik ondorio ekonomikoak zituela Eroski Taldearendako.

**EZ DA PLANTEATU**

Bada, Eroski Taldeak jakinarazi zuen eguenean, "egungo egoera ekonomikoari aurre egiteko, kooperatibako inongo organok" ez zuela planteatu aparteko ordainsaririk kentzea ez eta soldatak jaisterik. "Eroskik abenduan erabaki zuen 2009an soldatak ez igotzea eta bazkideei dagozkien urteko interesak ez monetarizatzea", diru hori bazkide bakoitzaren kapitala gehitzera joan zen-eta. "Orduz geroztik ez dira neurri gehiago landu", gehitu du Eroskik.

**NORMALTASUNA**

"Eroskiren gaitasun ekonomikoa zalantzaz kanpo dago", esan du taldeak; "gaurko egoera ekonomikoaren eragina leuntzeko behar diren neurriak hartu ditu, eta bere jarduerarekin erabateko normaltasunez jarraitzen du, bere bezeroei prezio aldetik oso lehiakorra den eskaintza komertziala eginez".

Zehazki, Eroski Taldeak erantzuten die komunikabideek aipatutako arrazoi guztiei ustezko jaitsiera hori erabakitzeko.

Batetik, banaketa-sektorean krisi ekonomikoak dituen eraginak aipatzen ziren. Eroski Taldeak hauxe erantzuten dio horri: "Desinbertsio plana, hornitzaileei kreditu-lerroak murriztea, kontsumoa txikitzea... operatzaile guztiei eragiten dieten errealitatea da, gaur egungo egoera ekonomikoa dela-eta, baina Eroskik behar diren neurriak hartu ditu, ez bakarrik krisiari aurre egiteko, baizik eta aukera hori kapitalizatzeko, hainbat aurrezpen-kanpaina garrantzitsuren bitartez".

Caprabo erosi izanaren ondorioak ere berriro aipatu dira hedabideetan. Horri erantzunez, Eroskik dio "aurreikuspen guztiak betetzen" dabiltzala eta "apustu zuzena" izan zela argi geratzen ari dela.

**KOOPERATIBAK**

# Iñaki Gabilondo, Ulmako zuzendari

Mondragon Korporazioko lehendakariorde ere izango da

**L.K.** > OÑATI

Iñaki Gabilondo da Ulma Taldeko Zuzendari Nagusi berria, eta Mondragon Korporazioko lehendakariordeetako bat ere izango da. Txomin Gartzia ordezkatuko du; hura, zazpi urtean kargu horretan izan ondoren, Euskadiko Kutxako lehendakari izatera pasa da.

Iñaki Gabilondo Legazpin jaio zen 1964an, ezkonduta dago eta bi seme-alaba ditu. Enpresa Zientzietan lizentziatua da Euskal Herriko Unibertsitatean, eta Enpresa Zuzendaritza masterra dauka Deustuko Unibertsitatean.

Ulma Taldeak 4.300 langile eta 725 milioi euro baino gehiagoko bolumena dauka. Gaur egun Mondragon Korporazioaren zati da, bere Industria Taldeko dibisioetako bat osatuz.


Iñaki Gabilondo. ULMA

**LANA** > HITZARMENA

# Nagusien egoitzako 12 langileek segitu egingo dute

Aretxabaletan egiten dabiltzan egoitza berriko langile izango dira herriko nagusien egoitzako 12 langileak

**LEIRE KORTABARRIA** > ARETXABALETA

Aretxabaletako nagusien egoitzan diharduten Urats-Gaineko langileek herri horretan egiten diharduten egoitza berriko langile izatera pasako dira. Halaxe onartu zuen udalbatzak joan den eguenean. Egoitza berriari eta langileei dagozkien hainbat baldintza onartu zituen udalbatzak, Aralarren eta PSE-EEren bina botorekin, eta EAJ eta Ezker Batuaren banarekin. EAk aurka bozkatu zuen.

**HERENA, ARETXABALETAKOA**

Urats-Gain Udal fundazioak kudeatu du Aretxabaletako nagusien egoitza, eta horren menpe zeuden egoitzako 12 langileak. Egoitza berria ekainaren 1ean hasiko da lanean, eta LKSren magalean sortutako GSR fundazioak kudeatuko du. Lan-hitzarmen berriaren arabera, GSRk ordainduko ditu langile horien soldatak, eta Udalak gehigarri bat ordainduko die harik eta orain arteko nominaren mailara iritsi arte.

Eguenean onartutako beste baldintzetako bat izan zen egoitza berriko lantaldeko herenak Aretxabaletan erroldatutako langileak izatea. Lantaldea 70-80 bat lagunek osatuko dute.

**LASTER ZABALIK**

Egoitza berria ekainaren 1ean hasiko da zerbitzua ematen, eta gaur egun Aretxabaletako egoitzan dauden 23 egoiliarrak harаxe pasatuko dira.


Egoitza berriko lanak ia bukatuta daude. JOSETXO ARANZABAL

auzorik auzo

**GALARTZA** > Antzuolako iparraldean kokatutako auzoa, Bergarako Elosu eta Antzuolako Uzarragarekin egiten du muga. Gainbehera datorren auzoa da; gaur egun 15 baserri inguru daude eta bizi, ostera, 35 lagun bizi dira Galartzan.



Irudian, Juan Jose Irazabalbeitia; atzean, auzoko mendiak eta baserriak. ARANTZAZU EZKIBEL

**Juan Jose Irazabalbeitia** > Galartzako auzo-alkatea

# "Azpiegiturak hobetu behar dira auzoa bizirik mantendu gura baldin badugu"

ARANTZAZU EZKIBEL > ANTZUOLA

**Gorriz baserriko Juan Jose Irazabalbeitia da Galartzako auzo alkatea. Oraingoa bigarren legealdia du lan horretan. Auzotarrak elkartzeko tokirik ez dute, eta dio hori dela Antzuolari falta zaiona. Auzoa utzita dagoen sentsazioa dutela gaineratu digu.**

**Zein da gaur egun auzoaren arazo nagusia?**

Baserriak poliki-poliki uzten dabiltzala. Gertatzen dena da Galartza auzoa urrun geratzen dela bai Antzuolatik eta baita Bergaratik ere. Jendea kalera jaisten dabil eta auzoa hutsik geratzeko arriskua dago. Azpiegiturak gura dira auzoa bizirik mantentzeko, baina udalak ez du dirurik gastatzen.

Gaur egun oso zaila da baserritik bizitzea, ezinezkoa ia. Hortaz, gazteek ez dute gura baserriarekin jarraitzea.

**Auzoa utzita dagoen sentimendua duzue?**

Bai, auzotar gutxi gara; hortaz, proportzioan diru asko behar da auzoa bizirik mantentzeko.

**Ura baserri bakoitzak berea dauka, eta saneamendu lana ere egin barik dago.**

Bai, horrela da. Auzo bakoitzak bere putzua dauka; iturburu batetik jasotzen dugu ura putzuan. Esan daiteke ez dugula arazorik izaten urarekin. Hala ere, goiko partean dauden baserri batzuk arazoak izaten dituzte uda partean; adibidez, minutuan ur litro bat jasotzera ez dira iristen. Horren aurrean, Udalak badauka plan bat Antzuolako auzoetan ura sartzen hasteko; baina, beti bezala gure auzoa azkena da. Plana 10 urterako da, eta gu azkenak gara.

Saneamenduari dagokionez, egin barik dago. Garai batean egin ziren fosa septiko batzuk, baina ordutik berritu barik daudenez, nahiko egoera txarrean daude.

**Errepidea orain dela urte gutxi egin dutela diozue.**

Bai, orain dela bi urte bota zuten errepidean porlana. Gertatzen dena da auzoa bi partetan geratzen dela; alde batera Antzuolatik igotzen zen eta bestera Bergaratik. Orain, behintzat bi zati horiek lotuta daude.

**Hala ere, leku lasaian eta politean bizi zarete. Zer egin daiteke auzoan?**

Ibilbide polita dago auzoan egiteko. Lehengo trenbide zaharretik, Uzarraga eta Galartza auzoan zehar ia 10 kilometroko ibilbidea dago, hiru orduan egitekoa. Jende asko etortzen da hona oinez ibiltzera; gainera, mendien goialdean zelai asko daude –basoa egon beharrean– eta ikuspegia oso polita da.

**Ikusteko zer dago auzoan?**

Ezer gutxi geratzen da; Santa Ageda ermita dago, eta lehen errota bat zegoen, baina gaur egun hondatuta dago.

**Santa Agedak zela ospatzen dituzue auzoan?**

Aste bukaeran ospatzen ditugu: meza, hamaiketakoa, trikitilariak... giro polita izaten dugu.

LAPURRETA

## "Santa Agedaren irudia 1984an lapurtu egin zuten"

"Elizari dagokionez, Galartza auzoa Uzarragaren menpe dago. Galartzan ermita dago, Santa Agedaren omenez", azaldu du Irazabalbeitiak. Bitxia da Santa Ageda ermitako irudiaren istorioa: "Andra Mariaren irudia 1984an lapurtu zuten eta oraintsu berreskuratu dute berriz. Bartzelonan aurkitu zuen Guardia Zibilak", dio auzo-alkateak. Irudia, baina, gaur egun ez dago Galartzan, Donostiako elizbarrutiko museoan baizik. "Behin ekarri zuten Galartzara jendeak ikus zezan, baina Donostiako museoan gordetzen dute", esan digu Irazabalbeitia auzo-alkateak.

ASTELEHENEKO
Goienkaria
astelehenean, aste bukaera osoa

Harpidedunen txokoa

Maiatzeko zozketa

Sariak irabazteko
HARPIDETU!
Tel.: 943 08 10 50
harpidetza@goiena.com
Kuota: 40 euro

LIBURUAK
Umeentzat liburu sorta.
BIDALI AG LIBURUAK 5533 zkra


ZIRA
Euskal Kirol Federazioaren zira.
BIDALI ZIRA 5533 zkra.


MUNDUMIRA PACK
Mundumirako pack-a.
BIDALI AG MUNDUMIRA 5533 zkra.


LIBURUA
Bernardo Atxagaren "Markak" liburua.
BIDALI AG MARKAK 5533 zkra.


JOKOA
"AUSKALO" jokua +8 umeentzat.
BIDALI AG AUSKALO 5533 zkra.


SARI NAGUSIA
PARTE-HARTZAILE GUZTIEN ARTEAN ZOZKETATUKO DA



BELAONTZI BATEAN IRTEERA HONDARRIBIATIK

J.L Abuinen eskutik
J.L ABUIN / PUY BIDEBURU
25 urtetan teknika naturalak zure eskura jartzen
Mendia jauregia 639 02 47 14 | S. Josepe, 10 943 77 01 33 | Kiroldegia 943 77 16 77

SMSaren kostua: 0,60 euro + BEZa dei bakoitzeko.
Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestionatzea. Eskubidea izango duzu datuotan sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezeztatzeko, helbide honetara idatzita: harpidetza@goiena.com

Bizitza politiko mugitua izan du Xabier Zubizarreta *Txironek*; hamar urte luzetan Arrasateko alkate izana, zentsura mozio batek kendu zuen kargutik 1997an, baina horrek ez zuen bizitza politikotik kanpo utzi. 65 urte beteta eta erretiroa hartzeko puntuan, urte luzetan politikan jardun denaren jakintza helarazten du; harekin izan gara gu.

**Xabier Zubizarreta** > Ezker Abertzaleko kidea

# "Euskal Herrian gehiengoak onartuko duen proposamen politikoa behar da"

MIREN ARREGI > ARRASATE

**100.000 boto eskuratu ditu Legebiltzarrerako hauteskundeetan Ezker Abertzalearen D3M aukerak, baina, beste behin ez dute ordezkaritzarik izango, botoak baliogabetu egin dituztelako. Horretaz eta egoera politikoaz jardun gara Arrasateko alkate ohi Xabier Zubizarretarekin.**


Xabier Zubizarreta Arrasateko alkate ohia eta Ezker Abertzaleko kidea. MIREN ARREGI

**Nola ulertzen duzu hauteskundeek utzi dutena? Ezker Abertzalea hauteskudeetara aurkezteko debekua, emaitzak, parlamentuaren egituraketa...?**

Hauteskundeek utzi dutena ez da aldatu gehiegi aurreko autonomikoetan izandako emaitzekin; oraingo honetan, baina, gertatu dena da Ezker Abertzalearen botoak ez direla kontabilizatu, eta horrek, sorrarazten du Gasteizko parlamentuan sortu den egoera berri ezezaguna. Astean bertan, PNVko ordezkariak berak argi adierazi dio Patxi Lopezi lehendakari izango zela, baina ez ganbara hartako gehiengoarengatikbaizik eta alderdi legearen ondorioz. Trukatuta dago, beraz, parlamentu horretako egoera

**Ezker Abertzaleak 100.000 boto. Zer adierazten dute?**

Hauteskundeetan hiritargoari eskatu zaio gero parlamentuan baliorik eman behar ez zioten boto bat, eta hiritarrek halako proposamen bati baiezkoarekin erantzuteak erakusten du zenbateraino indarra daukan Euskal Herria nazio bat den ideiak eta Euskal Herriak erabakitzeko eskubidea izan behar duen ideiak.

**Igarriko da aldaketarik legebiltzarrak har ditzakeen erabakietan? Zer espero genezake?**

PSE-EEren eta PPren artean lehendakariaren aukeraketa egiteko landu duten akordio horretan, aipatu dituzte hezkuntza arloa, ETAren kontrako borroka, kultura mailako ekimenak, komunikabideen kontrola... Horrek guztiak argi adierazten digu goitik beherako ildo bat irekiko dutela, beharbada orain artekoa baino bortitzagoa izan daitekeena; kontutan hartuta orain artean ere Euskal Herriak inposizioa, bortizkeria eta ukazioa jasan dituela egunero. Hala ere, norabidea ez da asko aldatuko, ikusi besterik ez dago, esaterako, orain arte Ertzaintzak izan duen jokabidea. Norabide aldaketa handirik ez dut espero, nahiz eta errepresioa gogorragoa izan daitekeen.

**ETA espazio publikotik desagertarazteaz eta deslegitimatzeaz ere jardun zen Lopez...**

Diskurtso hori ez da atzokoa. Etengabe egiten dabiltzan diskurtso bat da. Eta ez dira konturatzen eurak direla ETAk iraun dezan arrazoi nagusia. Espainiako Estatuak sortzen duen errepresioa eta Euskal Herriarekiko duen jarrera ukatzailea da horrelako ereakzioak eragiten dituena, eta norabide hori aldatzen ez bada ereakzioek ere jarraitu egingo dute.

**Egigurenek esan du 2011n ETA desagertuko dela. Nola ulertu behar da hori?**

ETA desagertzeko ez du balio PPren eta PSE-EEren arteko akordio bat egoteak; aurrez ere egon dira halako saiakerak eta ez dute lortu. Horretarako, euskal hiritargoak daukan borondatearen errespetua behar da eta hori errespetatzen den egunean desagertuko dira gaur egunean bizi ditugun konfrontazio armatu eta bestelakoak. PSE-EE momentu horretan sartuta dago halako errepresio fase batean Ezker Abertzalea ahuldu nahian, nahiz eta Ezker Abertzalea ez duten ahulduko politikoki; kontrakoa, seguru aski Ezker Abertzalea berrindartuta aterako da. Lehenago edo geroago akordio baten bila joan beharko dugu, eta halako elkarrizketa fase batean sartu beharko gara.

**Lizarra-Garazitik hona baldintza politiko eta sozialak aldatu egin dira?**

Orain, baldintza errealak ez dira momentu hartan zeudenak. Orduan ere alderdi unionistek ez zuten parte hartu Lizarra-Garazin. EAJ nik uste politikoki behartuta aurkitu zelako sartu zela akordio horretan; bestetik, Estatuak hori ikusi zuenean benetan larritu egin zen. Gaur egun ere soziologikoki baldintza horiek badaude, izan ere, euskaldungoak ez du iritzi politikoa aldatu.

**Zer gertatu behar da beste negoziazio prozesu bat hasteko?**

Gaur egun dugun espektro politikoak aldaketak jasan behar ditu eta hori euskal gizartearen eskutan dago. Horretarako motor inportante bat Ezker Abertzalea da, eta horregatik dago horren erreprimitua; badakite hori sorrarazteko gai garela. Kontua ez da, baina, siglen batze bat, baizik eta Euskal Herriaren gehiengoak onartuko duen proposamen politiko bat. Hor egongo da gainditu beharreko lehen koska. Lizarra-Garaziko akordioa bera egun batetik bestera sortu zen eta hori perspektiba ertainetik benetan ezusteko bat izan zen. Gaur egunean ere gerta daiteke antzerako zerbait, eta uste dut Euskal Herrian badaudela baldintzak horretarako.

**Badira Ezker Abertzalea bitan banatuta dagoela diotenak. Halakorik badago?**

Ezker Abertzalean biolentziaren aldekoak eta kontrakoak daudela esaten dutenen teoria hori zeharo interesatua da. Ezker Abertzalean denok gaude biolentziaren kontra. Hain zuzen ere, biolentzia delako jasaten duguna eta guk ez daukagulako interesik inori biolentziaren ondorioak jasanarazteko. Orain arte bake prozesu deitu izan diren prozesu guztiak Ezker Abertzaleak bultzatu ditu eta orain ere hori egiteko prest dago. Ez da egia, beraz, bi jokaera daudela alderdi barruan. Beste gauza bat da egoera honetatik irteteko moduak desberdin interpretatu daitezkeela; baina, hori erabat zilegi da.

**Polo subiranista bat sortzeko EAJ eta Aralar kanpo uzten dituzue?**

Orain arteko jokabidea ikusita, egia da esan izan dela printzipioz alde batera uzten direla aukera horiek; baina, horrek ez du esan gura bidea itxi egiten zaiela polo subiranista baten parte izateko, baizik eta orain arte egiten dituzten proposamen politikoak ez direla hor sartzeko modukoak. Hala ere, gu ez gara nor inori ateak ixteko. Baina, burujabetasuna defenditu behar badugu, argi dago EAJren orain arteko jarrera politikoa ez dela izan euskaldunon burujabetasuna babesteko eta defenditzeko jarrera bat, ezta inondik ere. Alderantziz, Espainiako Estatuarekin batera errepresioan kolaboratu egin du. Hori da kontua, euren proposamen politikoak ez duelako benetan defenditzen aipatutako polo subiranista hori.

EMAITZAK

**"Emaitzek erakusten dute erabakitzeko eskubidearen ideiak hemen duen indarra"**

GOBERNU ALDAKETA

**"Errepresioa gogorragoa izan daiteke, baina norabidea ez da aldatuko"**

LIZARRA-GARAZI

**"Soziologikoki orduko baldintzak badaude; euskaldungoak ez du iritzi politikoa aldatu"**


8x4
8 x 4 Gordailua
Aukera bikaina zure aurrezkientzat.
Gure 8x4 Gordailu berriarekin, oso errentagarritasun erakargarria eskuratzeko aukera duzu, zure kapitala arriskatu gabe.
zer nahi duzu bihar?
www.kutxa.net
kutxa

**kale inkesta**

# Zelan hartu duzu Patxi Lopezen Lehendakari izendapena? Zer ekarriko duela uste duzu?



**Francisco Moreno**
Bergara

Ondo ikusten dut Patxi Lopez Lehendakari izatea, botere aldaketa beharrezkoa zela uste dut. Guztiendako gobernatuko duela esan du eta ea hala den... Ekonomia eta krisiari eman beharko diola lehentasuna.



**Javier Ruiz de Egino**
Bergara

Ez zait gustatzen. Ikusten zen PP eta PSOE elkartuko zirela, eta azkenean halaxe egin dute boterea eskuratzearren. Zer ekarriko duen paktu honek? Ezer handirik ez..., euskararen alde behintzat ez dute egingo.



**Jesus Oroiz**
Bergara

Tranpak eginda iritsi dira gobernura, bestela ez ziren ailegatuko eta... Ez dakit ba aldaketarik sumatuko dugun, okerrera igual... Politika asuntoarekin egurra egongo da eta presoen egoera ere txarrera...



**Paloma Carrillo**
Bergara

Egia esan, ez ditut gehiegi jarraitu politika kontuak aspaldian. Ez diot garrantzi handiegia ematen baina ikusi beharko da, ala? Ea nola moldatzen diren. Gutxienez, aukera eman eta gero ba ikusi behar...

**irakurlearen txokoa**

# 943 25 05 05

goienkaria@goiena.com

ARETXABALETA

**> Basabe poligonoko bideko koska**

Auto gidari batek deitu digu esanez, Basabe industrialdeko kalean errepidea egoera kaskarrean dagoela. "Autoz nindoala koska baten gainera igo nintzen eta zebrabide altxatua zela pentsatu banuen ere, errepidearen erdian gorantz egiten zuen gune bat zegoela ikusi nuen, saihesteko aukerarik ere ez nuen izan paretik beste auto bat zetorrelako, eta sekulako sustoa hartu nuen. Ea konpontzeko modurik badagoen", esan digu.

BERGARA

**> Kultura etxerako bidea konponduta**

Irakurle batek deitu digu esanez, Errotalde jauregirako bidea konpondu dutela eta eskertzekoa dela: "Aspaldian joan gabea nintzen Kultura etxera eta lehengo astean ikusi nuen nola harako bidea asfaltatu egin duten. Beharra bazegoen, eta pozten naiz azkenean erosoago ipini dutelako".

ARRASATE

**> Autoa abandonatuta**

Arrasateko irakurle batek deitu digu esanez, Musakola auzoan, AGA enpresaren parean, errekaz beste aldera auto bat ardura gabe utzia dagoela. "Paseatzera sarritan joaten naiz inguru horretara eta urtebete baino gehiago da auto hori hor dagoela. Gainera, Arrasateko beste toki batzuetan ere ikusi ditut autoak abandonatuta. Jakin nahiko nuke zeinen ardura den erretiratzea".

**usteak uste**

**Irati Agirreazaldegi**

# Politikaren gola ezin kontrola

Joan den asteak eman du zeresana Gasteizen eta Gernikan eta nola ez, politikan. Baina *Lazkao Txikik* behin esan zuen moduan... "politikan ez dago ezer politikan", ez behintzat denondako polita denikan. Hala ere, egunotan telebistan, irratian,, egunkarietan edo kaleko elkarrizketetan ez da entzuten besterikan.

Oker nabil. Politika beste edo gehiago entzuten da kirola, hobe esanda, Athletic eta futbola. Eguaztenera arte Bilboko taldearen izena ezingo du isildu inork eta inola eta zer esanik ez gutxien uste den unean sartuz gero garaipenaren gola.

Kirola eta politika baino gai hoberik egongo ote da? Agian guk beste edozeri heltzea hobe da.

Ezin aurkitu gure usteak kaleratzeko gai politikan, eta ezin hitzez bada ere zuen ateetan sartu golikan. Inork ba al dauka zer esan hoberikan?

**zorroztailea**



Larraitz Ugarte

# Yasmin Zamira Rodriguez

"Gogoratu zuten eraso sexistak zoritxarrez ohikoak direla gure herri eta hirietan. Horren adibide aipatu zuten joan den asteburuan, hiri berean, bi emakume bortxatu zituztela San Migel auzoan; eta leku berean joan den martxoaren 8an mota horretako beste eraso bat ere jazo zela".

**Gara 2009/05/10**


EG2
Una mujer muere acuchillada en Irun a manos de su ex pareja

Horixe da Euskal Herrian aurtengoan izan dugun indarkeri matxistaren azken izen propioa. Horixe asteburuak utzi digun albiste odoltsua. Beste emakume bat gehiago erahila, beste euskal herritar bat indarkeri matxistaren itsukeriak eramana. Beste behin ere erakunde feministen erreibindikazioak eta herri erakundeen protestak eta kondenak. Baina 2009ko kontabilitateak herena baizik ez du bete, eta dagoeneko bost hildakoz hitz egiten ari gara. Izugarriak dira zenbakiak. Izugarriak ere Irungo Bilgune Feminístak emaniko datuak Irungo herriari dagozkionak soilik: iragan asteburuan bi bortxaketa izan ziren eta martxoaren 8an burututako beste eraso sexista baten berri ere eman zuten. Elkarte honek egindako elkarretaratzeko pankartak zioen bezala, Nazkatuta nago!

Duela hilabete pare bat Gasteizko gasolindegi batean indarkeri matxistaren arrazoigabeziaren lekuko izatea egokitu zitzaidan. Neska odoletan zegoen eta mutila, berriz, hotz. Hotza zuen begirada, hotza jarrera, belarrira zerbait xuxurlatzen zion neskari eta neska ikaratuta zeukan. Erotu eta kotxea gidatzen zihoala jo zuen. Etorri ziren ertzainak eta atxilotzen ari zirela neskari begietara begiratu eta "te voy a matar" nola esaten zion ikusi ahal izan nuen izuikara eragin zidan hoztasun horrekin. Komisaldegira nere testigantza ematera joan nintzenean mehatxuarena eta hoztasunarena komentatu eta ertzainak tipoak seguruenez mehatxua bete egingo duela esan zidan, denbora kontua zela. Orain egunkarietan neskaren izena noiz ikusiko zain nago. Gasolindegian berriro izan nintzenean tipoa hurrengo egunean kotxearen bila, beraz, aske, itzuli zela jakin izan nuen. Eta ondorengoa irudikatu dezaket: berriro etxera itzuliko zen eta ez zen denbora asko pasako neskari beste paliza bat jo arte. Eta horrela bizi gara, neurri legal eta bitarteko hankamotz eta antzuekin kontabilitate tristea egiten emakumeak euren etxeko infernuetatik ezin aterata, eta kaleetan lasai ezin ibiltzera kondenatuta gaudela ikusten.

**"Ertzainak tipoak seguruenik mehatxua beteko duela esan zidan"**

**"Egunkarietan neskaren izena noiz ikusiko zain nago"**

**Goienkaria**

**Argiraratzailea** Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkartea • Nafarroa etorbidea 2 • 20500 ARRASATE
**Lehendakaria** Estepan Plazaola **Zuzendari nagusia** Inazio Arregi

**Zuzendaria** Eneko Azkarate **Erredaktore burua** Iker Barandiaran **Erredakzioa** Xabier Urtzelai, Edu Mendibil, Irati Agirreazaldegi **Oinarrizko diseinua** Goio Arana **Diseinu arduraduna** Iñaki Iturbe **Maketazioa** Kepa Martelo **Publizitate arduraduna** Mireia Larrañaga **Harpidetza eta banaketa** Marta Leturia **Administrazio arduraduna** Agurtzane Gaintzarain

**EGOITZA NAGUSIA**
**BERGARA** 20570 Barrenkalea 33 • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 12
Posta-e: goienkaria@goiena.com

**ORDEZKARITZAK**
**ARRASATE** 20500 Otalora Lizentziaduna 31 • 132 posta-kutxa • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 12
Posta-e: arrasate@goiena.com
**ARETXABALETA** 20550 Durana 11 • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 77 18 54
Posta-e: aretxabaleta@goiena.com

**Publizitatea** Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 09
Posta-e: publi@goiena.com

**Harpidetza** Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 08 10 50 • Posta-e: harpidetza@goiena.com

**Lege Gordailua:** SS-0088/04 • **ISSN:** 1697 3542 • **Tirada:** 5.000 ale

Goiena Komunikazio Zerbitzuak

ASTELEHENEKKO GOIENKARIAk ez du bere gain hartzen IRITZIA orrialdean, edo kolboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria

Gipuzkoako Foru Aldundia

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria



**> ARRASATE**
Etxean zein egoitzan bizi diren nagusiendako jangela egokitu gura dute Iturbide egoitzan **> 15**



**> BERGARA**
Musika Eskolaren 25. urtemuga ospatzeko, udaberriko kontzertu berezia zapatuan **> 16**



**> OÑATI**
San Martingo babes ofizialeko 45 etxeen zozketa eguaztenean egingo dute **> 18**

**ESKORIATZA** > V. MUNDUMIRA JAIALDIA

# Ia guztia prest dute Eskoriatzan munduko kulturen jai erraldoirako

**ILDO BERETIK** Aurreko lau ekitaldietan bezala, natura, kultura eta bidaiak izango dira ardatz nagusiak, maiatzaren 22tik 24ra

**GARRAIO PUBLIKOA** Aparkalekuen falta da antolatzaileen kezka nagusietako bat; garraio publikoa indartuko dute jaialdiari begira

**EDU MENDIBIL** > ESKORIATZA

Udaberriarekin eta uda usainarekin batera Mundumira jaialdia dator azken urteotan. Munduko kulturen festaren bosgarren ekitaldia izango da aurtengoa, maiatzaren 22tik 24ra Eskoriatzan ospatuko dena. Arrasate, Oñati, Aretxabaleta eta Bergaratik igaro ondoren, Eskoriatzan geldialdia egingo du Debagoieneko Mankomunitateak eta *Euskal Herria* aldizkariak bultzatutako jaialdiak. Aurreko lau ekitaldietako izaerari eutsiko dio Mundumirak, Kike Zinkunegi aldizkariko zuzendariaren hitzetan: "paperean erakutsi ohi duguna aste bukaera bat irauten duen festan erakusten jarraituko dugu aurten ere. Festa handi bat da Mundumira, bere osotasunean gauza asko uztartzen dituena, eta jende guztiarentzat aproposa dena".

Gauzak horrela, natura, kultura eta bidaiak izango dira jaialdiaren ardatz nagusiak. Antolatzaileek hamaika proposamen gertatu dituzte maiatzeko laugarren aste bukaerarako: mendi eta bidaia azoka, erakusketak, ikus-entzunezkoak, kale animazioa, ibilbide kulturalak, eskalada txapelketa, umeendako jolasak, munduko jaki ezberdinen dastatzea, foro solidarioak eta beste hainbat.

**HIRU TENPLUAK ZAPATUAN**

*Aperitibo* moduan Hiru Tenpluen ibilbidea egingo da oraingo zapatuan, hilaren 16an, Loiola, Zumarragako Antiguako ermita eta Arantzazu ikusiz, GR-120 bidea jarraituz 45 kilometro eginez. Aloña Mendi Elkarteak antolatu du eta izenematea 943 79 64 63 edo 902 18 14 71 telefonoetan egin daiteke. Plaza mugatuak dira. 9-10 orduko ibilbidea aurreikusi dute antolatzaileek, 06:00etan hasita.

**APARKALEKUA, ARAZOA**

Aparkalekuen falta da antolatzaileen kezka nagusietako bat. Arantxa Unzueta Eskoriatzako Udaleko kultura teknikariaren hitzetan, "Eskoriatza herri txikia da. Ez dago aparkaleku asko eta gainera, unibertsitateko bi parking eta lehengo tren geltokikoa itxita izango dira, auto-karabanek erabiltzeko; eta unibertsitateko bat zapatuko kontzerturako, hain zuzen. Beraz, etortzen diren auto denak Torrebaso industrialdeko aparkalekuetara eta Copreciko parkingera zuzenduko dituzte, handik jendea oinez edo autobuses etorri. Garraio publikoa bultzatzeko ahalegin berezia egingo dugu. Hainbat autobus zerbitzu indartuko dituzte Mundumira jaialdiari begira eta gure erronka zera izango da: informazioa ondo zabaltzea etorriko diren guztiei eta jendeak gure gomendioei kasu egitea, noski, inolako arazorik ez izateko".



Eskoriatzako Udaleko eta Mankomunitateko ordezkariak Mundumirako kartelarekin. JASONE ZABALA



Macaco mestizaiaren erreferentzietako bat dugu; maiatzaren 23an joko du Eskoriatzan, Mundumiran.

## Mundumira: aurten ere mundu zabaleko doinuak batuko dira Eskoriatzan, hiru egunez

Mundumiraren izaerari jarraituz, munduko musiken eskaintza da jaialdiaren ikurretako bat. Aurten ere mundu zabaleko doinuekin gozatu ahal izango dute Eskoriatzara hurbiltzen direnek. Zapatuko (maiatzaren 23a) kontzertu nagusia Macaco talde kataluniarrak eskainiko du. Unibertsitateko aparkalekuan jarriko duten Elkar agertokian izango da aipatutako kontzertua (beste guztiak Eskoriatzako plazan izango dira). Macacok *Puerto presente* disko berria aurkeztuko du Eskoriatzan eta haien aurretik Rude Kanka eta Iban Nikolai arduratuko dira giroa berotzeaz: reggae erritmoak txalapartarekin eta Iban Nikolairen didgeridoaren soinu bereziarekin. Kontzertua doanekoa izango da. Bezperan, maiatzaren 22an, Korrontzi, Zura hondarribiarrak (Xabi Strubellen gidaritzapean), DJ Marek eta 17 Hippies izango dira. Balkanetako musikaren eta Europako doinuen bateratzea egiten dute 17 Hippies alemanek. Horiez gain, beste hainbat gonbidatu etorriko dira aurtengo Mundumirara: Mlomp senegaldarrak, Madera de Choro brasildarrak, Candombe uruguaiarrak, Venezuelatik datorren Bloque 53... Toki askotako doinuak batuko dira Eskoriatzan, hiru egunez.

**ARRASATE** > EXTREMADURAKO LAGUNEN ELKARTEA

# Ekitaldiz betetako kultura Astea ospatu dute

## Corazon de Encinak musika, gimnasia, umorea eta gastronomia eraman ditu San Andresera



Donostiako Nuestra Señora de Guadalupe taldearen ikuskizuna. CORAZON DE ENCINA

**IKER BARANDIARAN** > ARRASATE

Atzo, domeka, arratsaldean amaitu zuten Corazon de Encina elkartekoek XIX. Kultura Astea. Hala, ia San Andresko jaietatik abiatuta atzora arte ekitaldiak egin eta egin ibili dira.

Asteburuan, jakina, egin dituzte ekitaldi sonatuenak, eta, gainera, izan dira berrikuntzak.

### GIMNASIA ERAKUSTALDIA

Berrikuntzetako bat Arrasateko Dragoi Gimnasia Taldearen erakustaldia izan zen. Arrasateko hainbat gaztetxok euren abileziak erakutsi zituzten, eta jende asko izan zen horien ikuskizunaz gozatzen egubakoitzean. Hori bukatu ostean, flamenko ikuskizuna eta saiheski jana izan zituzten gauean.

### ZAPATUAN, MUSIKA BARRA-BARRA

Zapatuan, berriz, brindisarekin hasi zuten eguna; eta arratsaldean hainbat musika taldek esku hartu zuten: Las Chambras, Nuestra Señora de Guadalupe eta Al Andalusko taldea. Horrez gain, *play-back* jaialdia eta dantzaldia ere izan zituzten.

Atzo, domeka, berriz, gazpatxo eta tortilla lehiaketak bertan behera utzi zituzten, beste hitzordu bat zeukatelako: Aita Menni ospitalera jo zuten beste kultura elkarte batzuekin batera produktuen dastatzea eta jaia egitera.



Arrasateko Dragoi Gimnasia Taldea. CORAZON DE ENCINA



Isabel Fernandez eta *El Rubio*. CORAZON DE ENCINA



**OÑATI** > SAN MIEL TXIKI JAIAK

# Arrakastatsua eta jendetsua izan da kale zaharreneko jaia

Aurreko urtean moduan, oraingoan ere egubakoitz, zapatu eta domekarako ekitaldi ugari antolatu ditu jai batzordeak



Des-Kontrol taldearen kontzertuan jende asko izan zen. MIREN ARREGI



Herri kiroletan umeak eta helduak ibili ziren desafioan. M.A.

**IKER BARANDIARAN** > OÑATI

Behingoz eguraldiak errespetatu zituen Oñatiko kale zaharrenaren ospakizunak, San Miel Txiki jaiak; hala, tarteka euria izan zuten arren, ekitaldi guztiekin aurrera egin zuten.

Egitarau potoloa antolatu zuten eta berrikuntzak ere izan zituzten, jendearen gustukoak izan zirenak.

**DES-KONTROL ETA EGAN**

Egubakoitzeko kontzertuak ikusle asko izan zituen, eta berandura arte jarraitu zituzten Des-Kontrol, Sharon Stoner eta Jukebox taldeen doinuak. Zapatuan, berriz, horiek baino txikiagoek eta baita nagusienek ere dantza egin zuten atseden hartu barik; horren erruduna Egan taldea izan zen. Izugarrizko giroa ipini zuten dantzaldian.

Bestalde, herri kirolek eta Txatxilipurdiren laguntzarekin egindako haur parkeak ere arrakasta izan zuten.

**ARETXABALETA** > SAHARAREN ALDEKO KROSA

# Adin askotakoen elkartasuna eta korrika bat eginda



Saharako ikurrina erakutsi zuten lasterkarietako batzuk. JOSETXO ARANTZABAL



Irabazleak Saharako arropekin jantzi zituzten. MIRARI ALTUBE

**I.B.** > ARETXABALETA

Zapatu arratsaldean egin zuten Aretxabaletan Sahararen Aldeko II. Krosa, Iesbaa taldeak antolatuta. Eguraldi txarra iragarrita zegoen arren, txikiek zein nagusiek euri barik korrika egin ahal izan zuten.

8 urtera arteko sei umek egin zuten korrika; 8 eta 12 urte bitarteko hamarrek; eta 22 helduk. Giro ona izan zen krosean, eta baita ikusleen artean ere.

**IAZ BAINO GUTXIAGO**

Iesbaa taldekoek esan ziguten aurten iaz baino jende gutxiago izan zela krosean; lehenengo edizioan 90 parte-hartzaile izan zituzten. Hala ere, eskerrak eman zizkieten guztiei.

## Abesbatzen topaketa egin zuten Uarkapen

Arizmendik antolatuta, Eskola Arteko XXII. Abesbatzen Topaketa egin zuten zapatu arratsaldean Uarkapen. Arizmendiko Santa Teresa, Arimazubi eta Almen guneez gain, ikastola bereko abesbatza ere izan zen kantuan. Horiek ez ziren, baina, bakarrak izan: Aramaioko San Martin eskolako eta Tolosako Laskorain eskolako umeek ere abestu zuten.

Ohikoa duten moduan, batutako diruaren %25a GKE batendako bereiztu zuten: aurten Arrasateko Amsograrendako.



MIRARI ALTUBE

**GIZARTE ONGIZATEA** > AUZOLAN PROGRAMA 2009

# Egoera larrian daudenei laneratzen laguntzeko udal programa: Auzolan

Auzolan programaren bitartez, Udalak ofizio bat erakusten die bazterketa arriskuan dauden hainbat laguni; aurten 16 lagunek parte hartzen dihardu

**UBANE MADERA**> ARRASATE

Arrasateko Udalak badu behar larriak dituzten pertsonei gizartean integratzen laguntzeko, edo, bestela esanda, gizarteratzen laguntzeko programa: Auzolan.

Auzolanen bitartez ofizio bat erakusten diete bazterketa arriskuan dauden pertsonei. Hasierako formazioa eman eta sei hilabeteko kontratua egiten die Udalak. "Hasierako formazioan (bost bat egun) lantzen dutena da taldea osatu, arauak ikasi, horiek betetzearen garrantzia, talde dinamikak, eta beste. Bigarren zatian sartzen da sei hileko kontratazioa, egunean sei ordu. Eta hor barruan lantzen dute formazio orokorra gehi bakarkako eta taldeko tutoretzak", azaldu du Virginia Arriolak, Gizarte Ongizate Saileko udal teknikariak.

**BASO-LANA ETA LOREZAINTZA**

Auzolanen arduradunak kontatu du aurten zortzi laguneko talde bat baso-lanak, lorezaintzarekin lotutakoak eta garbiketa lanak (lokalen garbiketak-eta) egiten ikasten dabilela. Martxoan hasi eta irailera arte segituko du talde horrek. Eta bestetik, zortzi laguneko beste talde bat ehungintza kontuak lantzen dabilela.

Kontatu du, baita ere, Auzolan programaren laugarren edizioa dela aurtengoa, Arrasateko Udala 2005ean hasi zen-eta hori lantzen, lau sailen koordinazioarekin: Pertsonal, Zerbitzu, Ingurumen eta Ongizate sailak.

Jaurlaritzaren Gizarteko Zuzendaritzak bultzatutakoa da Auzolan; hori gauzatzeko Arrasateko Udalak dirulaguntza jasotzen du. Eta Udalak ere ekonomikoki laguntzen du, langileen segurantzako kostuak hari dagozkio-eta. "Gizarteratzeko prozesuan laneratzea oso inportantea da, baina askotan parte hartzen duten pertsonek ez dute lanerako ohiturarik; hori da landu behar dena", zehaztu du udal langileak.

**HAUTAKETA PROZESUA**

Auzolan programako parte-hartzaileak zela aukeratzen dituzten ere azaldu du: "Egoera larrian daudenen diagnostikoa behar da; Jaurlaritzaren diagnostiko fitxarekin egiten dugu hautaketa", dio Arriolak. "Oinarrizko errenta jasotzen duten pertsonak dira gehienak", gaineratu du.

**EZ DA ENPLEGU ZERBITZUA**

Azpimarratu du, baita ere, Auzolan programak emaitza oso onak eman dituela Arrasaten: "Sekula lan egin ez duten pertsonak dira; bat-batean lan egin beharra dute eta gero lanean jarraitu". Azken batean, Auzolan programaren helburua da "pertsona horri erremintak ematea bere kabuz gauza izan dadin lana topatzeko".

Horrekin batera, udal teknikariak argi utzi gura izan du Gizarte Ongizate Saila ez dela enplegu zerbitzua: "Orain, krisia dela eta ez dela, hasi da jendea lan eske etortzen, eta hau ez da ez Lanbide eta ezta INEM ere".

CORTE VERDE: AURTENGO PROGRAMA BERRIA

## Josten ikasteko programa abiarazi dute aurten, Emaus gizarteratze enpresarekin

Auzolan programari lotuta, aurten bide berria zabaldu du Udalak: ehunen birziklatzea. Emaus Fundazioarekin urrian hasi zen elkarlana, 12 lagunen prestaketarekin; eta urtarrilaz geroztik Auzolan formularekin jarraitu dute *Corte Verde-Auzolan 2008* egitasmoa.

Ehunen birziklapena eta pertsonen laneratzea da *Corte Verde-Auzolan 2008* egitasmoaren helburua. Zortzi lagunek dihardute Nafarroa etorbidean, Udalak Emausi utzitako lokaletan, josten ikasten. Sei hilabetean jardungo dute, eta gero "hurrengo pausoa da gizarteratze enpresa batean lan-lekua sortzea haiendako", azaldu du Marga Garmendiak, Corte Verde programaren arduradunak. "Ehunen birziklapenetik hasi dira, baina aurrerago, berrerabilgarriak diren beste produktu batzuen errekuperazioarekin eta salmentarekin jarraitzea litzateke asmoa", gaineratu du. Eta esan du, baita ere, saiakera horrek abiapuntua izan "nahi" duela Emausek Donostian garatuta duen Eko Zentroaren esperientzia Arrasatera ekartzeko.



Auzolan programaren barruan baso-lana ikasten dabiltzan herritarrak, mendian lanean. GOIENKARIA



Udan dezente erabiltzen den frontoia aparkaleku egin du Udalak. GOIENKARIA

**OBRAK** > SANTA MARINA KALEA

## Lanek aparkaleku falta sortu dute Obenerrekan

Udalak frontoia aparkaleku egin du, baina kontrako iritziak azaldu dira

**JOKIN BEREZIARTUA** > ARRASATE

Santa Marina auzoko obrek aparkaleku falta eragin dute. Ulertzekoa da, obra handiak egiten ari baitira. Obenerrekako bidegurutzetik hasi eta Agerreko biribilguneraino dagoen zatia maila berean jartzeko lanak dira, eta Udalak aurreratu duenez ez dira urte amaierara arte bukatuko.

Lanokin kalearen irisgarritasuna bermatu gura dute eta baita kalea hobeto antolatuta uztea ere. Zatika egiten ari den obra guztiaren aurrekontua 1.691.093 eurokoa da.

**FRONTOIA APARKALEKU**

Obrek arazoak sortzen dituztela jakina da. Bada, ohiko arazoei aparkaleku beharra gehitu zaie Santa Marina auzoko bizilagunei. Aparkatzeko leku falta dela-eta Udalak frontoia –irudian– egokitzea pentsatu zuen. Obra sailak jakinarazi duenez, auzo alkatearekin eta zenbait bizilagunekin hitz egin ostean erabaki zuten frontoia aparkaleku egitea. Hala ere, itxuraz auzotarren oniritziz hartutako erabakia ez da denen gustukoa izan. Herritar batek herritar talde baten izenean jakinarazi digunez, frontoia "ez da aukera egokiena aparkalekua jartzeko". Kexa jarri duen herritarra frontoiaren erabiltzailea da eta, dioenez, "uda osoa frontoia erabiltzeko aukera barik geratuko gara bederatzi kotxe bakarrik sartuko diren aparkalekua jarri dutelako". Gainera, frontoia asko erabiltzen dela dio herritarrak: "normalean beteta egoten da".

Kexa jarri duenak, baina, badu beste proposamen bat: aparkalekuendako frontoia erabili beharrean Andra Mari Mesedeetako ikastetxeko bi aparkalekuak erabiltzea, hain zuzen. Izan ere, dioenez, "leku gehiago dago eta ez da frontoiaren erabilera kaltetzen".

**PROPOSAMENA AZTERTZEN**

Udaleko obra sailak harriduraz hartu du herritarren kexa, auzo alkatearekin eta auzotarrekin adostutako neurria izan zelako. Hala ere, proposamen berria aztertuko dutela adierazi dute.

Santa Marina kaleko lanak nahiko zailak ari dira izaten Udalarentzat baina ekidin daitezkeen eragozpenak sahiesteko ahalegina egingo dutela jakinarazi dute.

> IKASTAROA

### Pertsonen arteko erlazioak errazten dituzten trebetasunak lantzeko ikastaroa Kulturaten

Hezkide Eskolak antolatuta, *Gizarte trebetasunak* izeneko ikastaroa izango da hilaren 18an, 19an eta 20an Kulturaten (17:00-20:00). Ikastaroaren helburuak dira norberaren gizarte trebetasunen inguruko hausnarketa sustatzea eta pertsonen arteko erlazioak errazten dituzten trebetasunak lantzea. Boluntario lanetan hasteko interesa duen ororentzat dago bereziki zuzenduta. Izena emateko: 943 25 20 07 telefonora deitu edo *prebentzioa@arrasate-mondragon.net* helbide elektronikora mezua bidali, maiatzaren 13a baino lehen.

**UDALA** > MAIATZEKO OSOKO BILKURA

# Pertsona nagusiendako jangela egokitu gura dute Iturbide egoitzan

Egoitzan bizi diren nagusiendako ez ezik, etxean bakarrik bizi direnendako ere izango litzateke

Jangela horretan bazkaltzea lau euro eta erdi kostatuko da eta afaltzea, hiru euro eta erdi

**UBANE MADERA** > ARRASATE

Gure inguruan berritzailea den egitasmoa lantzen dihardu Arrasateko Udalak, eta maiatzari dagokion osoko bilkuran (joan den eguenean) egitasmo hori gauzatzeko aurreneko pauso publikoa eman zuten: nagusiendako jangelan aplikatu behar dituzten tarifen onespena: 4,50 euro bazkariarengatik eta 3,50 euro, berriz, afariarengatik.

**ITURBIDE EGOITZAN**

Iturbide egoitzan gura dute pertsona nagusiendako jangela zerbitzua egokitu; pentsatzekoa da Abaroa berria egiten dutenean egoitzak irabaziko duen espazioan egokituko dutela.

Jangela hori ez da izango egoitzan bizi direnendako bakarrik, baizik eta laguntza beharra daukan eta etxean bizi den edozein nagusirendako.

Azken batean, Udalak laguntasuna eman gura die bakarrik bizi diren eta zailtasunak dituzten pertsona nagusiei, bakarrik bizi izaten segitu dezaten. Hau da, sarri eguneroko janak prestatzeko edo errekaduak egiteko zailtasunak dituzten nagusiek erabakitzen dute, bakarrik bizi izaten segitu barik, egoitza batera bizi izatera joatea. Bada, halakoei laguntzea da Udalaren asmoa.

**XEHETASUNAK, OSOKOAN**

Jangela horren araudia eta bestelako xehetasunak argitzea falta da orain. Hori guztia datorren osoko bilkuran landuko dutela aditzera eman dute udal iturriek, ekainari dagokion osoko bilkuran. Orduantxe eskuratuko ditugu, beraz, xehetasun guztiak.



Arrasateko adinduen Iturbide egoitza. UBANE MADERA

ZABOR TASAREN IGOERA

## Osokoak onespena eman zion zabor tasari

Debagoieneko Mankomunitateak onartzen badu Gipuzkoako zaborren partzuergoan sartzea, Arrasaten %20,1 igoko da zabor tasa uztailean. Gipuzkoako erraustegi falta da igoera horren arrazoia. Izan ere, orain arte Beasaingo Sasietako erraustegira eramaten zituzten Arrasaten eta, oro har, Debagoienean batutako zaborrak. Orain, berriz, Sasieta itxi egin dute. Eta, oraingoz, Gipuzkoan ez dago beste erraustegirik. Hori horrela, Gipuzkoako Diputazioak erabaki zuen Gipuzkoan erraustegia egin arte gipuzkoarren zabor guztiak Bizkaiko erraustegira eramatea, partzuergo berri baten bitartez. Orain falta da jakitea ea Mankomunitatea hor sartuko den; edozelan ere, beste aukerarik ez dago, oraingoz.

DATUA

**%20,1**

**IGOERA**

Arrasaten %20,1 igoko dute zaborraren tasa uztailean. Bestela esanda, etxez etxeko zaborra orain arte sei hiletik behin 39,64 euro ordaindu beharra izaten zen, eta uztailetik aurrera 49,63 euro ordaindu beharko da.



GOIENKARIA

## San Andresko jaien balorazio 'guztiz positiboa'

Orain bi aste bukaera ospatu ostean, gutxiago falta da datorren urteko San Andres jaietarako, eta orain jaien balorazioa egiteko txanda da. Aitor Guridi San Andresko auzo alkateak jakinarazi duenez, "auzoan entzuten denaren arabera, orokorrean auzotarrak pozik daude aurtengo jaiekin". Guridik, gainera, guztiek gozatu dutela dio: "bai auzoko nagusienek, euren omenezko bazkari eta jasotako opariekin, eta baita gaztetxoenek ere, aurten eurak izan baitira protagonista". Izan ere, txikienentzat eskaintza zabala izan da oso: Gorritiren animaliak –irudian–, puzgarriak, Txatxilipurdik antolatutako tailerrak, txokolate jatea eta opariak, besteak beste.

Bestalde, herri bazkarian 152 lagun elkartu ziren, eta Guridik azaldu duenez, "giro paregabea izan genuen, jendea oso pozik gelditu zen". Eta musikari dagokionez, auzoko gazteen aldeko apustua eginez asmatu egin dutela uste du auzo alkateak. Hortaz, San Andresko batzordeak jaien inguruan egiten duen balorazioa "guztiz positiboa" da.

> HITZALDIA

### Tomas Muro Ugalde teologoak hitzaldia egingo du Kulturaten, eguenean

Hitzaldi erlijiosoa izango da asteon Kulturaten. Izan ere, Tomas Muro Ugalde elizbarrutiko teologoak hitzaldia egingo du eguenean, hilak 14, Kulturateko Jokin Zaitegi aretoan. Arrasateko parrokiak gonbidatu du teologoa eta *Esperanza en tiempo de desesparanza* izenburua duen hitzaldia eskainiko du. Arratsaldeko zazpietan hasiko da.

> ARRASATE MUSIKAL

### Datorren astelehenean zabalduko da aurre-matrikula epea, ekainaren 18ra arte

Ikasturtea oraindik amaitzeke, Arrasate Musikal hasia da datorren ikasturtea prestatzen. Izan ere, zehaztu du aurre-matrikula egiteko epea; datorren astelehenean zabalduko da, hilaren 18an, hain zuzen ere. Izena emateko azken eguna ekainaren 18a izango da. Interesatuak, idazkaritzara jo beharko du astelehenetik eguenera, 17:00etatik 20:00etara bitartean.





Musikal Eskolako orkestrak eta abesbatzak aurten ere egingo dute emanaldia egubakoitzeko saioan. GOIENKARIA

Alfredo Gonzalez Chirlaquek urtemugarako egin duen abestia aurkeztuko dute eta herriko hainbat musika taldek ere hartuko dute parte

**KULTURA** > MUSIKA

# Udaberriko kontzertua jai bihurtuko dute Musika Eskolakoek

**MONIKA BELASTEGI** > BERGARA

Musika Eskolak udaberriko kontzertua egingo du hilaren 16an, 19:30ean, Udal Pilotalekuan. Saioa berezia izango da, jai bihurtzeraino. Izan ere, 25. urtemuga ospatzen dihardu Musika Eskolak eta ospakizun horren bueltan jardungo du datorren zapatuko kontzertuak.

Alde batetik, herriko hainbat talde gonbidatuk emanaldia egingo dute: Aritzeta Abesbatza, Bergarako Orfeoia, Gabero Abesbatza, Bergako Orkestra Sinfonikoa eta txistulari banda.

Taldeok emanaldia egingo dute. Horrez gain, Musika Eskolak dituen talde guztiek ere egingo dute saioa eta amaieran, talde guztiek elkarrekin Mikel Laboaren *Txoriak txori* egingo dute.

Bestetik, Alfredo Gonzalez Chirlquek urtemugarako abestia konposatu du eta hitzak Manu Diezek egin ditu; hori ere kontzertu egunean aurkeztuko dute orkestrak eta eskolako taldeek.

Kontzertuaren ostean afaria egongo da pilotalekuan, eta herritarrak gonbidatu nahi dituzte Musika Eskolako kideek. Afaritarako izena eman behar da Musika Eskolan, 17:30-19:30 ordutegian.

Prezioaren kasuan, nagusiek 18 euro ordainduko dute kontzertuko txartela eta afaria eta haurrek, 7 euro. Kontzertuko txartela soilik 5 euro izango da helduendako eta 3-12 urtera artekoendako.

**HEZKUNTZA**

# UNEDen 33 udako ikastaro egongo dira

Ikastaroak ekainaren 16tik 26ra izango dira eta izenematea zabalik dago

**M.B.** > BERGARA

UNEDek udako ikastaroak aurkeztu ditu asteon. Askotariko 33 ikastarok osatzen dute aurtengo eskaintza, lau arlo nagusitan banatuta: Humanitateak –12 ikastaro–, Psikologia Aplikatua –bederatzi ikastaro–, Gizarte Zientziak –zortzi ikastaro– eta lau tailer edo mintegi ere egongo dira. Ikastarook antolatu dituzte UNED-Bergara Patronatuko kide den Kutxaren laguntzarekin.

Epealdiari dagokionez, ekainaren 16an hasi eta 26ra bitartean izango dira ikastaro guztiak –bakoitzak egutegi propioa du– eta eskolak Bergarako egoitzan emango dituzte. Gainera, egoitza horretako ohiko irakasleez gain, gaian adituak diren beste aditu batzuk ere egongo dira.

**IZENEMATEA ZABALIK**

Izenematea zabalik dago eta horretarako azken eguna maiatzaren 30a da.

Informazio gehiagorako edo izena emateko jo *uned.es/ca-bergara* webgunera, idatzi *info@bergara-uned.es* helbidera edo deitu 943 76 90 33 telefono zenbakira.




GOIENKARIA

## Bergara eta Aloña elkarteetako igerilariak Narbarten

Aurreko aste bukaeran, maiatzaren 1ean eta 2an, Bergara Igeri Elkarteko eta Aloña Mendiko 46 igerilari eta bost monitore Nafarroara joan ziren, Narbartera, hain justu ere.

*Rafting*-ean, *hidrospeed*-ean eta soka zirkuituan jardun zuten eta aste bukaera paregabea pasa zutela aitortu dute, errepikatzeko modukoa. Izan ere, egunerokotasunetik irten eta esperientzia berriaz gozatzeko modu bikaina aukeratu zutela esan dute Bergara Igeri Elkarteko kideek.



JOSETXO ARANTZABAL

## Gonzalez ahizpei merezitako omenaldia

Mari Karmen eta Mari Kontxi Gonzalez ahizpek Bergara KEren esker ona jaso zuten zapatuan, Bergara-Lagun Onak B (3-0) partiduaren atarian. Ez dute sekula hutsik egiten, eta taldeak biziki eskertzen dituen zale leial horietakoak dira biak. Jokalari belaunaldi dezente igarotzen ikusi dituzte eta Bergararen igoerarekin poza hartu dute aurten. Lore sorta bana jaso zuten Pedro Rico presidentearen eta Manu Diaz entrenatzailearen eskutik.



Musikal Eskolako orkestrak eta abesbatzak aurten ere egingo dute emanaldia egubakoitzeko saioan. GOIENKARIA

Alfredo Gonzalez Chirlaquek urtemugarako egin duen abestia aurkeztuko dute eta herriko hainbat musika taldek ere hartuko dute parte

**KULTURA** > MUSIKA

# Udaberriko kontzertua jai bihurtuko dute Musika Eskolakoek

**MONIKA BELASTEGI** > BERGARA

Musika Eskolak udaberriko kontzertua egingo du hilaren 16an, 19:30ean, Udal Pilotalekuan. Saioa berezia izango da, jai bihurtzeraino. Izan ere, 25. urtemuga ospatzen dihardu Musika Eskolak eta ospakizun horren bueltan jardungo du datorren zapatuko kontzertuak.

Alde batetik, herriko hainbat talde gonbidatuk emanaldia egingo dute: Aritzeta Abesbatza, Bergarako Orfeoia, Gabero Abesbatza, Bergako Orkestra Sinfonikoa eta txistulari banda.

Taldeok emanaldia egingo dute. Horrez gain, Musika Eskolak dituen talde guztiek ere egingo dute saioa eta amaieran, talde guztiek elkarrekin Mikel Laboaren *Txoriak txori* egingo dute.

Bestetik, Alfredo Gonzalez Chirlquek urtemugarako abestia konposatu du eta hitzak Manu Diezek egin ditu; hori ere kontzertu egunean aurkeztuko dute orkestrak eta eskolako taldeek.

Kontzertuaren ostean afaria egongo da pilotalekuan, eta herritarrak gonbidatu nahi dituzte Musika Eskolako kideek. Afaritarako izena eman behar da Musika Eskolan, 17:30-19:30 ordutegian.

Prezioaren kasuan, nagusiek 18 euro ordainduko dute kontzertuko txartela eta afaria eta haurrek, 7 euro. Kontzertuko txartela soilik 5 euro izango da helduendako eta 3-12 urtera artekoendako.

**HEZKUNTZA**

# UNEDen 33 udako ikastaro egongo dira

Ikastaroak ekainaren 16tik 26ra izango dira eta izenematea zabalik dago

**M.B.** > BERGARA

UNEDek udako ikastaroak aurkeztu ditu asteon. Askotariko 33 ikastarok osatzen dute aurtengo eskaintza, lau arlo nagusitan banatuta: Humanitateak –12 ikastaro–, Psikologia Aplikatua –bederatzi ikastaro–, Gizarte Zientziak –zortzi ikastaro– eta lau tailer edo mintegi ere egongo dira. Ikastarook antolatu dituzte UNED-Bergara Patronatuko kide den Kutxaren laguntzarekin.

Epealdiari dagokionez, ekainaren 16an hasi eta 26ra bitartean izango dira ikastaro guztiak –bakoitzak egutegi propioa du– eta eskolak Bergarako egoitzan emango dituzte. Gainera, egoitza horretako ohiko irakasleez gain, gaian adituak diren beste aditu batzuk ere egongo dira.

**IZENEMATEA ZABALIK**

Izenematea zabalik dago eta horretarako azken eguna maiatzaren 30a da.

Informazio gehiagorako edo izena emateko jo *uned.es/ca-bergara* webgunera, idatzi *info@bergara-uned.es* helbidera edo deitu 943 76 90 33 telefono zenbakira.




GOIENKARIA

## Bergara eta Aloña elkarteetako igerilariak Narbarten

Aurreko aste bukaeran, maiatzaren 1ean eta 2an, Bergara Igeri Elkarteko eta Aloña Mendiko 46 igerilari eta bost monitore Nafarroara joan ziren, Narbartera, hain justu ere.

*Rafting*-ean, *hidrospeed*-ean eta soka zirkuituan jardun zuten eta aste bukaera paregabea pasa zutela aitortu dute, errepikatzeko modukoa. Izan ere, egunerokotasunetik irten eta esperientzia berriaz gozatzeko modu bikaina aukeratu zutela esan dute Bergara Igeri Elkarteko kideek.



JOSETXO ARANTZABAL

## Gonzalez ahizpei merezitako omenaldia

Mari Karmen eta Mari Kontxi Gonzalez ahizpek Bergara KEren esker ona jaso zuten zapatuan, Bergara-Lagun Onak B (3-0) partiduaren atarian. Ez dute sekula hutsik egiten, eta taldeak biziki eskertzen dituen zale leial horietakoak dira biak. Jokalari belaunaldi dezente igarotzen ikusi dituzte eta Bergararen igoerarekin poza hartu dute aurten. Lore sorta bana jaso zuten Pedro Rico presidentearen eta Manu Diaz entrenatzailearen eskutik.

**KIROLA** > UDA KANPAINA

# Eguenean zabalik, udako ikastaroetarako izenematea

## Haur eta gazteendako eta helduendako ikastaroak antolatu dituzte, guztira 22; izenematea zabalik dago ekainaren 14ra arte

**MONIKA BELATEGI** > BERGARA

Udaleko Kirol Zerbitzuak uda kanpaina abiarazi du, eta, iaz bezala, eskaintza bikoitza egin dute: batetik, haur eta gazteendako –18 urtera arte– eta bestetik, helduendako –15 urtetik gorakoak– ikastaroak daude. Lehenengoen kasuan, bederatzi ikastaroren artean aukera dezakete eta nagusiek, 13 ikastaroren artean.

Ikastaroen epealdia da ekainaren 29tik uztailaren 24ra eta ikastaroak izango dira hil osokoak eta hamabost egunekoak.

**ASKOTARIKO IKASTAROAK**

Askotariko ikastaroak daude aukeran, besteak beste: multi-jarduerak, tenisa, igeriketa, piraguismoa, irristaketa, skatea, batuka, funkya, break dancea, pilatesa, aerobatuka, aquaerobika, areto txirringa, igeri hobekuntza eta fitnessa.

Gehienak Agorrosinen izango dira, tenisa, irristaketa, gazteendako multi-jarduerak, skatea eta beste bakarren bat izan ezik. Azken horiek Labegaraietako kiroldegian izango dira.

**IZENEMATEA ZABALTZEAR**

Izenematea zabalduko dute eguenean, hilaren 14an, eta azkeneko eguna izango da ekainaren 14a, Agorrosinen. Informazio gehiago *www.bergara.net* helbidean.

Ikastaroetan nork parte hartuko duen zozketa bidez erabakiko dute ekainaren 18an.

**URPEKARITZA IKASTAROA**

Urpekaritza ikastaroa ere antolatu du Kirol Zerbitzuak, Gipuzkoako Urpekaritza Jardueren Federazioarekin elkarlanean, eta eskuratu ahal izango da *Izar bat* deritzon lehenengo mailako titulua.

Ikastaro horrek bi atal izango ditu: bata, teorikoa, eta Agorrosinen izango da, maiatzaren 25etik 29ra; bestea, praktikoa, eta Getarian, itsasoan, egingo diren murgilketetan oinarritzen da.

Izenematea da maiatzaren 6tik 20ra, Agorrosinen.

### Kanpainaren egutegia

**Izenematea** maiatzaren 14tik ekainaren 14ra
**Behin-behineko zerrendak** ekainaren 15ean
**Akatsak zuzentzeko epea** ekainak 16 eta ekainak 17
**Zozketa eguna** ekainak 18
**Behin betiko zerrendak** ekainak 19
**Aldaketak egiteko epea** ekainaren 19tik 23ra
**Saioen hasiera** ekainaren 29an

**TXANDAK**
**Txanda bakarra:** ekainaren 29tik uztailaren 24ra
**Lehen txanda:** ekainaren 29tik uztailaren 10era.
**Bigarren txanda:** uztailaren 13tik uztailaren 24ra



Irudian, neska-mutiko taldea igeriketa ikastaroan. GOIENKARIA

**EUSKARA** > JARDUN ELKARTEA

# Uztailerako udaleku ibiltaria antolatu du Jardun elkarteak

## 14 eta 16 urte arteko gazteendako da, uztailaren 6tik 17ra bitartean

**M.B.** > BERGARA

Jardun Euskara Elkarteak uztailerako udaleku ibiltaria antolatu du. Arrasateko Txatxilipurdirekin, Durangoko Berbarorekin eta Lasarteko Ttakun elkartearekin elkarlanean antolatu du.

14 eta 16 urte bitarteko gazteei zuzenduta dago eta uztailaren 6tik 17ra izango da. *Kosta ala kosta* izena eman diote eta Araban hasi eta Bizkaiko kostaldean bukatuko da. Ibilbidean barrena abentura asko bizi izateko aukera izango dute gazteek eta ekintza ugari ere egingo dute.

**IZENEMATEA ZABALIK**

Izenematea zabalik dago eta azken eguna maiatzaren 15a da. Horretarako, jo Jardunera edo deitu 943 76 36 61 zenbakira.



Iaz Orio-Donostia-Orio itsasontzian ibilaldia ere egin zuten gazteek GOIENKARIA

**PAZKOAK**

# Bakailao lehiaketan, izenematea zabalik

## Elkarteen arteko lehiaketan izena emateko mugaeguna maiatzaren 18a da

**M.B.** > BERGARA

Mendekoste jaietako elkarteen arteko bakailao lehiaketan parte hartzeko baldintzak kaleratu berri ditu Kultura Sailak.

Herriko elkarteetako taldeek hartu ahal izango dute parte, elkarte bakoitzetik talde bakarrak; eta taldeak bi lagunez osatuta egongo dira.

Parte-hartzaileek kultura etxean hartuko dituzte lurrezko lapikoak hilaren 20tik 26ra, 16:00etatik aurrera. Udalak emango die 135 euroko dieta bakailaoa eta beharrezko dituzten bestelako osagaiak erosteko. Lehiaketa hilaren 31n izango da, 11:00etan, eta bakailaoak prest egon beharko du 12:45erako.

Izena emateko azken eguna hilaren 18a da, 943 77 91 59 zenbakian.

## oharrak

ZERGAK

**> Ondasun higiezinen gaineko zerga ordaintzeko epea zabalik**

Epea maiatzaren 15ean irekiko dutela eman du aditzera Udalak. Ordainketa egiteko borondatezko epea ekainaren 30era artekoa da. Epe hori bukatu ondoren errekarguarekin kobratuko dute. Ordaintzeko moduari dagokionez, ordainketa banketxeren baten helbideratuta duten zergadunei, banketxe beraren bitartez kobratuko zaie. Erreziboak helbideratu gabe dituzten zergadunek datozen egunetan etxean jasoko dute ordainketa egiteko beharrezkoa den agiria. Agiri horrekin edozein banketxe edo udal bulegotatik pasa daiteke. Agiri hori maiatzaren 31 aurretik jaso ezean edo azalpenen bat behar izanez gero, kontu-hartzailetzara jo.

IKASTAROA

**> Beart elkarteak neska-mutikoendako pintura ikastaroa antolatu du uztailerako**

Astelehenetik egubakoitzera izango da, 10:00-12:00. Ekainaren 29an hasiko da eta uztailaren 24an amaitu. Prezioa 55 euro da. Izena emateko epea da maiatzaren 22ra arte. (Mayra: 653 71 53 82).

BATZARRA

**> Jardun euskara elkarteak gogoeta saioa egingo du**

Maiatzaren 16an izango da, 09:30ean, Altzasu elkartean. Saioaren helburua da elkarteak jarraitu beharreko norabideaz hausnartzea. Saiora deitzen dituzte bazkideak eta interesa duen edonor. Bukatu eta gero bazkaria egongo da. Bazkaltzen geratzeko izena eman behar da hilaren 13a aurretik, Jardunen (943 76 36 61).

DEIALDIA

**> Bergara Igeri Elkarteak entrenatzailea behar du**

2009-10 denboraldirako eta hurrengoetarako behar du igeriketa entrenatzailea. Interesatuek bidali curriculuma *bergara@igeri.net* helbidera edo Bergarako 224 posta-kutxara idatzi.

BRIGADAK 09

**> Komite Internazionalistekin brigadetara joateko deia**

Brasil, Kuba, Venezuela, Palestina eta Kolonbiara joango dira KIko kideak aurtengo udan. Izenematea da maiatzaren 19ra arte, *www.herriak.org* webgunean. Brigadon aurkezpena astelehenean, hilak 11, egingo dute, 19:30ean, kultura etxean.

HAUTESKUNDEAK

**> Europako Parlamenturako posta bidezko botoa**

Ekainaren 7an postaz bozkatu nahi dutenendako bulegoa jarri du EAJk Bidekurutzetan –Carmen Garate poltsa-denda zegoen lekuan–. 11:00-13:00 eta 18:30-20:30 ordutegia izango du. Eskaerak egiteko azken eguna da hilaren 28a. Argibideetarako: 943 76 47 00.

**ETXEBIZITZAK** > ZOZKETA

# San Martingo babes ofizialeko etxeen zozketa eguaztenean egingo dute

45 etxe zozketatuko dituzte 520 eskariren artean kiroldegiko pilotalekuan, 18:00etan; zozketa irekia izango da



San Martingo etxeak bukatzear daude. MIREIA BIKUÑA

**MIREIA BIKUÑA** > OÑATI

Horrenbeste denbora itxaroten egon ondoren, jarri dute San Martinen egiten dihardutent babes ofizialeko etxeen zozketa eguna: hain justu ere, eguaztenean, hilaren 13an egingo dute, kiroldegiko pilotalekuan, 18:00etan. Herritarrendako irekia izango da, eta zozketa zuzentzen egongo dira udal ordezkariak eta notarioa.

Zozketan parte hartuko dute 520 herritarrek. Horietatik, 354 izen kupo orokorrean sartuko dituzte, bi familia ugariendako etxeen zozketan eta 174 Etxebiden lau urtez baino gehiagoz izena emanda dutenen zozketan. Ezinduendako etxeen zozketarako ez dute izenik jaso Etxebideko zerrendan.

**ZOZKETA NOLA EGINGO DUTEN**

Lehen-lehenik familia ugariendako zozketa egingo dute. Bi eskaera eta bi etxe daudenez, zozketa bidez erabakiko dute hiru logelako etxe bakoitza norendako den. Ondoren, beste bi etxe zozketatuko dituzte Etxebiden lau urtez baino gehiagoz izena emanda dauden 174 herritarren artean. Etxe barik geratzen diren 172ek kupo orokorrean izango dute bigarren aukera. Guztien artean, babes ofizialeko 40 etxe banatuko dituzte.

**HIRU ETXEBIZITZA-BLOKE**

San Martingo 45 etxeak hiru bloketan egiten dihardute: bakoitzean 15 etxe. 33 etxe hiru logelakoak dira, bederatzi bi logelakoak eta hiru logela bakarrekoak. Etxe guztiak garajearekin eta trastelekuarekin salduko dituzte.

Metro karratu bakoitzeko, gehienez, 1.409 euro ordaindu beharko dituzte erosleek.

> KIROLA

### Laixanek ez du Arrasate-Oñati lasterketa antolatuko aurten, kolaboratzaile falta dutelako

Laixan euskara elkarteak Arrasate-Oñati lasterketa bertan behera uztea erabaki du aurten. 16 urtez proba antolatzen ibili ondoren, aurten ez dute lasterketarik egingo. Laixaneko batzordeak arrazoi bakarra jarri du: kolaboratzaile falta. "Azken edizioetan antolatzaile lanetan ibili direnek jendearen partaidetza falta azpimarratu dute. Azken urteotan arazo handiak izan ditugu bidegurutze guztiak zaintzeko". Dena den, hurrengo urteetan *klasiko* bihurtu den proba berreskuratzen ahaleginduko direla diote.

> IKASTAROA

### Autoenpleguaren gaineko prestakuntza saioak antolatu dituzte herriko langabeendako

Krisi garaian autoenplegua bultzatzeko asmoz, langabeendako prestakuntza saioak antolatu ditu Udaleko Enplegu Zerbitzuak. Ikastaroa hilaren 19an hasiko dute eta 60 ordukoa izango da. Uztailaren 9an bukatuko dute. Eskolak martitzenetan eta eguenetan emango dituzte, 09:00etatik 12:00etara. Dagoeneko izenemate epea zabalik dago: interesatuek hilaren 15a baino lehen eman behar dute izena Enplegu Zerbitzuan.

> ERAKUSKETA

### 'De saldo' delako erakusketa ikusgai dago kultura etxeko erakusketa gelan hilaren 20ra arte

Kubako, Argentinako, Txileko eta Venezuelako artistekin osatu dute *De saldo* izeneko erakusketa. Kultura etxean daude ikusgai eta salgai artista horien lanak hilaren 20ra arte. "Arrazoizko salneurrian ipini dituzte; hau da, 20 eta 100 euro artean. Egilearendako errentagarria den lana ikuslearendako salneurri egokian jarri dute", diote antolatzaileek.

> DEIALDIA

### Bi eguneko defentsa pertsonaleko ikastaroa emakumeendako, Gizarte Zerbitzuen eskutik

Udal Gizarte Zerbitzuek antolatuta, emakumeendako defentsa pertsonaleko ikastaroa egingo dute kiroldegian. Maiatzaren 16an eta 23an egingo dute, 10:00etatik 13:00etara. Ikastaroa doan egingo dute eta plazak mugatuak dira. Interesatuek 943 03 77 00 telefonora dei dezakete. Besteak beste, lapurreta edo eraso egoeretan erabil daitezken oinarrizko teknikak landuko dituzte.

## oharrak

DEIALDIA

**> Nesken futbol taldeko bazkarirako izenematea gaur bukatzen da**

Maiatzaren 23ko bazkarira joan gura duenak 30 euro sartu beharko ditu 21010057530126831502 zenbakian. Izenemate epea gaur bertan bukatzen da. Dagoeneko 17 jokalarik eman dute izena. Bazkaldu aurretik futbol partidua jokatuko dute Azkoagainen.

HAUTESKUNDEAK

**> Europako Parlamenturako posta bidezko botoa EAJrekin**

Ekainaren 7an egingo dituzte Europako Legebiltzarrerako hauteskundeak. Posta bidezko botoa eman gura dutenak EAJren bulegotik pasa daitezke. Egunero zabalduko dute bulegoa, 19:30etik 21:00etara.

IZENEMATEA

**> Txiki Txokon izenemate epea zabalik, hilaren 15era arte**

Txiki Txoko haurtzaindegian izena eman gura duten gurasoek eskolatik pasa beharko dute izenemate orriak bete ahal izateko. Informazio gehiago 943 71 64 05 telefono zenbakian.

HITZALDIA

**> Bularreko minbiziari buruzko hitzaldia hilaren 19an**

Donostiako Onkologikoko sendagile Arrate Plazaolak egingo du hitzaldia Santa Ana antzokian, 18:00etan. Udaleko Gizarte Departamentuak eta Katxalin elkarteak antolatutako hitzaldira 50 eta 69 urte arteko emakumeak gonbidatu gura dituzte.

ZINEMA

**> 'Los abrazos rotos' filma ikusteko azken aukera**

Almodovarren azken filma, 19:30ean. Penelope Cruz eta Blanca Portillo dira protagonistak.

IZENEMATEA

**> Udalekuetako izenematea zabalik hilaren 18ra arte**

Uztaileko udalekuetan parte hartzeko 60 euro sartu behar dira Euskadiko Kutxan.

## txaloak eta txistuak



MIREIA BIKUÑA

### San Lorentzoko futbol zelaia, utzita

Irakurle batek idatzi digu San Lorentzoko futbol zelaiari buruz kezkatuta dagoela esateko. "San Lorentzon bizi naiz, eta pena handia ematen dit futbol zelaiaren egoera ikusteak. Herrian dauden kirolari mordoa ikusita, San Lorentzoko zelaia alferrik galtzen utzi behar dugu? Askotariko erabilera emateko gunea dela uste dut, bereziki futbolean jokatzen duten harrobiko taldeendako", esan digu.



Erreka bestaldean eraikitzen ari den auzo berriak badu dagoeneko izena; Txalapea ibilbidea izatea onartu zuen eguenean udalbatzak aho batez. JOSETXO ARANTZABAL

**UDALA** > HIRIGINTZA

# Txalapea ibilbidea deituko da Erreka beste aldeko auzoa

Eguen arratsaldean egindako osoko bilkuran aho batez onartu zuen udalbatzak esandako izena

Horretaz aparte, Europako hauteskundeetako mahaietako kideen zozketa egin zuten plenoan

**MIRIAN BITERI** > ARETXABALETA

Joan den eguenean, ez ohiko osoko bilkura egin zuten Aretxabaletako udaletxean. Lehenik eta behin, erreka beste aldean eraikitzen ari diren auzoari izena ipintzea erabaki zuen udalbatzak. Txalapea ibilbidea adostu zuen aho batez. Inaxio Garro alkateak azaldu zuen azkenaldian erabilitako irizpideak kontuan izan dituztela oraingoan ere; hau da, herriko toponimiaz baliatu direla: "Hori ere herriko altxorra da eta izen horiek ez baditugu babesten, galtzen joango dira. Bere garaian Iralabarri edo Belorrieta izenak berreskuratu ditugun bezala, garrantzitsua izango litzateke ingurune horretako deiturak ere mantentzea".

Garrok aipatu zuen hiru bat izen izan dituztela aukeran; tartean, Basotxo. Izen hori ezaguna da herrian eta horregatik Udal Gobernuak hori arbuiatzea erabaki zuen. Garroren esanetan, "geratzen zirenenen artean, Txalapea egokiena zela iruditu zaigu".

**GIZA ESKUBIDEEN ADIERAZPENA**

Izena aukeratzeaz gain, EAk proposatuta, urte amaiera baino lehen Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalarekin lotutako kalea izendatzea edo herriko toki batean horrekin lotutako elementua jartzea adostu zuen udalbatzak. EAko zinegotzi Edorta Mendietak gogorarazi zuen orain dela hilabete batzuk Udalak Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalaren aldeko mozioa onartu zela eta horretan herriko espazio publiko batean adierazpena goraipatzeko ekimena abian jarriko zela.

Bestalde, ekainaren 7an, Europako hauteskundeetako mahaietan egon beharko diren kideen zozketa egin zen. Egunotan udaltzainak jakinarazpena banatzen ari dira.

> ARETXABALETA

### Haur masaje ikastaroa dago Kurtzebarri eskolan

Aretxabaletako Kurtzebarri eskolan gurasoei zuzendutako masajea antolatu du datozen asteotarako. Hilabete batetik lau artean dituzten haurrei masajea ematen ikasteko eskolak gertatu dituzte han. Maiatzaren 25ean zein 28an eta ekainaren 1ean, 8an eta 11n izango dira horiek, 17:30ean. Eskolak Kurtzebarri Eskolan egingo dira. Antolatzaileek gaineratu dute jantzi erosoarekin etortzeaz gain, toaila bat eraman beharko dela saioetara.

Esandako ikastaro horren gainean informazio gehiago eskuratu gura dutenek edo izena eman gura dutenek 653 72 23 59 telefono zenbakira deitu behar dute.

> ARETXABALETA

### Basotxok irteera gertatu du hilaren 28an Lizarrara

Aretxabaletako erretiratuen elkarte Basotxok egun osoko irteera berria antolatu du hilabete honetan. Hango arduradunek jakinarazi dute maiatzaren 28an Nafarroara joango direla; Lizarrara, hain zuzen. Han, besteak beste, Puyko Andre Mariaren basilika, gaztelua, Lizarrako zubia, Nafarroako Erregeen jauregia, San Migel nahiz San Pedro de la Rua parrokiak eta alde zaharra ikusteko aukera izango dute aretxabaletarrek.

Basotxo elkartetik azaldu digute, irteera horretarako txartelak jasotzeko bi egun zehaztu dituztela: maiatzaren 18an eta 19an banatuko dira erretiratuen elkarteko egoitzan, 11:00etatik 12:00etara bitartean.

**ESKORIATZA** > GAZTEAK

# Udaleku ibiltarian parte ahalko dute uztailean herriko gazteek

Interesa dutenek asteon eman behar dute izena gaztelekuan; eskaera orriak han dituzte

**M.B.** > ESKORIATZA

Txatxilipurdik hamalau eta hamasei urte bitarteko gazteendako abentura udalekua antolatu du. Interesa dutenek gaztelekuan topatuko dituzte eskaera orriak. Hori bete eta 235 euro orri horretan ageri den kontu korrontean sartu, eta agiria gaztelekuan aurkeztu behar dute. Asteon amaitzen da izena emateko epea.

**HAMABI EGUN**

Aurtengo ibilbidea berezia izango dela azaldu dute antolatzaileek. Hamabi eguneko udalekuari uztailaren 6an Garaion emango diote hasiera, Otazako etxean. Bi egun pasako dituzte han. Jarraian, Gatzagara joango dira eta bertan lo egin ostean, hurrengo egunean Anboto mendiaren ingurunerantz abiatuko dira.

Uztailaren 10ean, Matienarantz jaisten diren bitartean, bidean eskalada egiteko aukera izango dute, Atxarte inguruan. Gainontzeko egunak, uztailaren 11tik 17ra bitartean, kostaldean igaroko dituzte. Lehenengo bi egunetan Laidako kanpinean hartuko dute ostatu gazteek; eta uztailaren 13an, Mundakara mugituko dira. Hurrengo egunean Gaztelugatxera iritsiko dira eta gaua bertan igarotzeko asmoa dute antolatzaileek. Azken egunak Bermeoko aterpetxean egingo dituzte.

> ESKORIATZA

### Eskoriatzako Udalak bizikletaren zulaketak konpontzeko tailerra antolatu du barikurako

Eskoriatzako Udalak tailerrak antolatu ditu aste honetan. Barikuan, maiatzak 15, bizikletaren zulaketak konpontzeko tailerra egongo da. Saioa bi ordukoa izango da, 18:00etatik 20:00etara, kultura etxean.

Izena eman gura dutenak kultura etxera bertara joan behar dira edo 943 71 46 88 telefono zenbakira deitu. Tailerra dohainik izango da.

> ESKORIATZA

### Eskoriatzarrek barikuan, hilak 15, eman behar dute nagusiendako uztaileko egonaldietan izena

Gipuzkoako Diputazioak udako aldi baterako egonaldiak antolatu ditu nagusiendako. Aurtengo denboraldiak hiru hilabete izango ditu eta hil bakoitzean izena emateko epe zehatza jarri du. Uztailerako, bariku honetan, hilak 15, eman beharra dago izena.

Nagusiendako egonaldietan interesa duten eskoriatzarrek Udaleko Gizarte Zerbitzuetara jo edo 943 71 31 36 telefono zenbakira deitu behar dute.



Miyuki Okabe eta Eneko Etxebarrieta tandemean munduko hondartza baten. ENEKO ETXEBARRIETA

**ARAMAIO** > BIDAIEI BURUZKO DIAPORAMAK

# Tandemean munduan zehar ibilitako bikotea

Eneko Etxebarrieta eta Miyuki Okabek 2005ean ekin zioten abentura ezagutzeko aukera izango da maiatzaren 14an, eguena, kultura etxean

**ARRITXU BARRUSO** > ARAMAIO

Maiatzean abenturaz betetako bidaien gaineko istorioak entzuteko aukera izango da. *Bidaiei buruzko diaporamak* izeneko programa antolatu dute. Hitzaldiak eguenetan izango dira, kultura etxean, 19:00etan.

Datorren eguenean, maiatzak 14, Eneko Etxebarrieta eta Miyuki Okabe senar-emazteen abenturaren txanda izango da. Bikote honek 2005ean 10 urteko bidaia bati ekin zion. Helburua zen tandemean munduari bira ematea eta teknologia berriak erabilita, uneoro, euren bizipenak gainontzekoei azaltzea, alegia, mundua ezagutzeko aukera ematea. Hain justu ere, *Mundua gerturatzen* ipini zioten izena euren abenturaren partikularrari. Asmoa zen 2010ean amaitzea abentura, baina Gasteizera uste baino lehen itzuli ziren. Arrazoia, bizitza berri bat bidean zela. 2008an Miyuki hardun geratu zen. Hori horrela, Venezuelatik Gasteizera itzultzea erabaki zuten.

Hiru urte pasatxo egin zituzten Enekok eta Miyukik bizikleta gainean; 15.000 kilometro baino gehiago Hego Amerikako lurretan. 50.000 argazki baino gehiagorekin itzuli ziren etxera eta kontatzeko moduko milaka istorioekin, noski. Bada istorio horiek entzuteko aukera izango da eguenean Aramaioko kultura etxean. Hurrengo hitzaldietan, Afrikako eta Alpeetako istorioak entzuteko aukera izango da.

### Bidaiei buruzko diaporamak

**Maiatzak 21, eguena**
*Afrikako hegoaldeko animaliak*
Hizlaria: Xabier Aranburu

**Maiatzak 28, eguena**
*Pirinioak eta Alpeak bizikletaz*
abentura moduan
Hizlaria: Aitor Arotzena

**LEINTZ GATZAGA** > UDALA

# Markel Olano diputatu nagusia izango da gaur herrian, Landagipuzkoaren berri ematen

Udal ordezkariekin elkartuko da lehenengo eta esandakoak prentsari jakinaraziko dizkio gero, gatz museoan

**MIRARI ALTUBE** > LEINTZ GATZAGA

Gipuzkoako Foru Aldundiko diputatu nagusi Markel Olano izango da gaur bisitan herrian. 11:00ak inguruan udal ordezkariekin elkartuko da –Eusebio Villar alkatea buru dela– eta herriaren gaineko gorabeheren berri emango diote. Berbagai nagusia, baina, Landagipuzkoa egitasmoa izango da. Ordubete egin ondoren, prentsakoekin du hitzordua diputatu nagusiak, Gatz Museoan (12:15).

**HERRI TXIKIEN GARAPENERAKO**

Landagipuzkoa 32 egitasmoa iaz jarri zuen abian Aldundiak 1.000 biztanle baino gutxiago dituzten Gipuzkoako 32 herritan, eta Gatzaga da ekimen horretan sartutako Debagoieneko herri bakarra. Landa inguruneko herri txikien garapenean laguntzea du helburu Landagipuzkoak, askotan zailtasunak izaten dituztelako udal horiek herritarren bizi kalitatea hobetuko luketen proiektuak aurrera eramateko.

40 milioi euro bideratuko zituela egitasmorako iragarri zuen Aldundiak iaz, eta lau proiektu mota garatzeko izango zirela: ura, bideak, erabilera askotariko azpiegiturak eta etxebizitza. Urrian egin zuen laguntza eskaera Gatzagako Udalak eta hainbat baserritara doazen bide sarrerak konpontzeko laguntza izan du. Hain zuzen, lan horiek egiten dabiltza orain Gatzagainen.

Iaz, abenduan, ostera, urdepositua eraikitzeko dirulaguntza eskaera egin zuen, Arlaban gaineko plan berezia aurrera eroan ahal izateko.

**ANTZUOLA** > AISIALDIA

# Kirol Zerbitzua kontratatzeko dei egin du Udalak

Zerbitzua uztailerako esleitzea eta ikasturte berrian Eguzki auzoko gimnasioa abian ipintzea da Udalaren asmoa

**IRATI AGIRREAZALDEGI** > ANTZUOLA

Eguzki auzoko gimnasioaren erabileraz eta kudeaketaz arduratuko den enpresa edo norbanakoa kontratatzeko dei egin du Udalak.

Hain zuzen, deia buletin ofizialean argitaratzen denetik 20 egun izango dituzte interesatuek dokumentazioa udaletxean aurkezteko: zerbitzua emateko eta langileak kudeatzeko proiektua; instalazioen kudeaketa eta bideragarritasun plana eta azterketa ekonomikoa; tarifa proposamena; baliabide materialak; eta zerbitzu gehigarriak.

**GASTUAK, ESLEIPENDUNAREN ESKU**

Erabiltzaileen kuotetatik jasotakoa izango da zerbitzuaren kudeatzailearen ordainsaria. Gastuez ere hark arduratu beharko du. Hau da, gimnasioa egongo den lokala utzi arren, materiala eta gimnasia aparailuak, mantenua, langileen soldatak… esleipendunak ordaindu beharko ditu.

Aurreikuspenen arabera, uztailerako egin nahi dute zerbitzuaren esleipena eta ikasturte berriarekin gimnasioa abian izatea da asmoa. Argibide gehiago udaletxean jaso daitezke.



Eguzki auzoko etxe berrien azpian egongo da gimnasioa. I. A.

**ELGETA** > HAUTESKUNDEAK

# Hauteskunde mahaiko kideak aukeratu dituzte

Zazpi egun izango ditu joan ezin duenak Bergaran errekurtsoa aurkezteko

**IRATI AGIRREAZALDEGI** > ELGETA

Joan den egueneko udalbatzarrean egin zen zozketa Europako Parlamenturako hauteskundeetarako mahaikideak zeintzuk izango diren jakiteko.

Ekainaren 7an izango dira hauteskundeak eta Elgetako udaletxean hauteskunde mahai bakarra ipiniko dute. Mahai horretan egotea egokitu zaie honako elgetarrei: mahaiburu lekua Larraitz Zeberio Lekuonari eta haren ordezkoak Goreti Gozalo Arroitia eta Sebastian Arantzabal Egizabal izango dira, hurrenez hurren; lehen bokalaren tokia Nerea Sarasua Arotzenari tokatu zaio eta Jorge Manuel Rendeiro Felicio eta Ignacio Arrieta Solaguren ordezkoak izango dira; bigarren bokalarena, berriz, Jorge Bolinaga Askasibarri, eta ordezkoak Begoña Loiti Bengoa eta Manuel Macarro Torrado dira.

**JAKINARAZPENA, ASTEON**

Zozketaren emaitza asteon jakinaraziko zaie, pertsonalki, mahaian egotea egokitu zaienei eta ordezkoei.

Jakinarazpena jaso eta hauteskunde mahaian ezin direla egon uste dutenek, hau da, horretarako aitzakiaren bat dutenek, zonako hauteskunde batzordean, Bergaran, jakinarazi beharko dute, arrazoiak adierazita. Errekurtsoa onartuz gero, hauteskunde batzordeak berak ohartaraziko du Udala, eta kasu horretan ordezkoak bete beharko du tokia.



**> SASKIBALOIA**
Lauko finaleko irabazle Erroibidek kanporatu zuen Eskoriatza **> 23**



**> FUTBOLA**
Mondrako neskek Gipuzkoako txapelketa irabazi zuten Ipintzan **> 25**

**> XABIER ARANTZETA**
Antzuolako ziklistak bigarren urtea du gazte mailan, eta dagoeneko tropeleko erreferentzietako bat bilakatu da. Podiumera igotzeari gustua hartu dio **> 28**



**FUTBOLA** > ATHLETIC-BARTZELONA, KOPAKO FINALA EGUAZTENEAN

# Ibarreko athleticzaleak, amestutako finalaren atarian

**PEÑA** Athleticek bost peña ditu ibarrean eta guztien ordezkariak izango dira Valentzian

**ZALE BETERANOA**
Juan Azpiazu bergararra 1975etik da Athleticeko bazkide



**ZALEAK** Peña Athletic Club Bergara taldeko kideak. Guztiek zuri-gorrien 25. Kopa irabaztea espero dute. Peñak 10. urteurrena beteko du ekainean. GOIENKARIA

**EDU MENDIBIL** > BERGARA

Athleticzaleek horren beste amestutako eguna iristear da. Asteazkenean Kopako finala jokatuko dute Athleticek eta Bartzelonak Valentziako Mestalla futbol zelaian. Partiduak sekulako ikusmina piztu du, Bizkaia aldean batik bat. Atzo 18.000 zale inguru batu ziren Bilbon jokalariak agurtzeko. Eromena. Baina Bizkaian bakarrik ez. Gurean ere Athleticzale asko daude eta horietako batzuk Valentzian izango dira eguaztenean.

Bost peña dauzka Athleticek ibarrean: Imanol Etxeberria Arrasaten; Intxortako Lehoiak Elgetan; Ritxi Mendiguren eta Oñatiko Zurigorri Taldea; eta Peña Athletic Club Bergara.

**ZALE BETERANOA**

Zalantzarik gabe, Juan Azpiazu *Txistu* 76 urteko bergararra da zalerik beteranoenetakoa. Umetan hasi zen Athletic jarraitzen eta oraindik gogoratzen du nola askotan trenean joaten zen Bilbora, bakarrik batzutan, bere taldea animatzera. Athleticek 1950. urtearen inguruan zuen aurrelari gogoangarri haiek gogoratzen ditu: "Iriondo, Venancio, Zarra, Panizo eta Gainza. Iriondo da bizirik dagoen bakarra...". 1975. urtetik Athleticeko bazkidea da *Txistu* eta etzikoa bere laugarren finala izango du. Aurrekoak primeran gogoratzen ditu: "1969an Elcheren aurka, 1-0; 1973an Castelloni 2-0 irabazi genion; 1977an penaltietan galdu genuen, Betisen aurka; eta egon nintzen azkena, orain dela 25 urtekoa, Bartzelonari Madrilen irabazi geniona".

Orain arte ez du zorte txarrik izan finaletan. Hala ere, asteazkenean faboritoa Barça dela onartzen du: "%20ko aukerak ditugula esango nuke eta horri eutsi beharko diogu, ala?". Suhiak lortu ditu sarrerak, Juan Bosch Bartzelonako direktiboa laguna dueta. "Alaba eta gizona eta andrea eta biok joango gara. Baneukan lagunendako beste bi sarrera lortzeko itxaropena, baina ezinezkoa izan da". Juan Carlos Rivero Peñako presidenteak ere zortea izan du, Athleticek bazkideen artean egindako zozketan sarrera eskuratu baitzuen: "Lau bazkideren izena eman genuen zenbaki batekin eta lau sarrera eskuratu... Bergaratik, guztira, 20 bat lagun izango gara finalean".

**OÑATITIK VALENTZIARA**

Antton Elortza oñatiar ezagunarendako bosgarren finala izango da baita; 1973 eta 1984koetan... eta beste bitan Reala animatzen, Zaragozan eta Madrilen, 1987an eta 1988an. Itxaropentsu dago: "Gainera, horrenbeste krisi eta *ERE* entzuten dela, holako gauzen beharra badago jendea alaitzeko... Beste lagun batekin noa, bezperan eta badaukat esperantza pitin bat irabazteko... Galtzen badugu Ebrotik gora etorriko gara Gabarrarekin, eta irabaziz gero itsasotik, penintsulari buelta osoa emanda", dio barrez.



Juan Azpiazu, finaleko sarrerarekin.



GOIENKARIA

**Haritz Gallastegi** > Euskadi Irratiko esatari

## "Irabaziz gero, topatuko dugu Valentzian non ospatu"

**E.M.** > BERGARA

**Haritz Gallastegi kazetari elgetarrak Kopako finalaren berri emango digu Euskadi Irratiko mikrofonotik. Hura ere bere partidurik garrantzitsuenaren aurrean dago .**

**Elgetarra eta Athleticekoa. Nola?**
Etxean bizi izan dudalako, aitarekin eta anaiarekin...

**Non zinen Gabarra azken aldiz atera zutenean?**
Elgetan, baina ez daukat orduko oroitzapen zehatzik.

**Gabarra ateratzeko zain dago...**
Athleticzaletasuna berreskuratzeko gauza handia litzateke.

**Gaurko Bartzelonari Kopa irabaztea *bilbainada* bat litzateke?**
Baietz uste dut...

**Athleticek berezko egiten duena?**
Batasuna; zale, jokalari...

**Barcaren jokalaririk arriskutsuena?**
Messi... Iniesta-eta inguruan izan arren Messi jokalari aparta da.

**Eta Athleticekoa?**
Denboraldi honetan, Llorente.

**Norbait faltan botako duzu?**
Ez, baina Joseba Etxeberriak minutuak izatea nahiko nuke, hainbat belaunaldiren ordezkaria delako.

**Noren gola kantatzea nahi?**
Gurpegirena.

**Sarrerarik ez izanez gero, zenbat ordainduko zenuke finala ikustearren?**
25 urte horren zain egon gara eta zaila da hori dirutan neurtzea...

**Zelaian ez bada, lekurik onena partidua ikusteko?**
Etxekoekin.

**Nerbioak baretzeko sekreturik?**
Ez daukat, etorri diren lekutik joaten badira hobe...

**Irabaziz gero, nola ospatuko duzu?**
Valentzian topatuko dugu non...

**PILOTA** > HERRI ARTEKO TXAPELKETA

# Bergarak Andoain kanporatu eta Arrasatek Ataunen aurka galdu

## Andoainen 2-1 galdu ondoren, Bergarak emaitza berarekin irabazi zuen egubakoitzean eta tanteoagatik sailkatu dira final laurdenetarako

**EDU MENDIBIL** > BERGARA

Herri arteko txapelketako final laurdenetan Bergara izango da ibarreko ordezkari bakarra. Mahoneroek buelta eman zioten egubakoitzean, Udal Pilotalekuan, Andoainen kontrako kanporaketari, tanteoari esker gainera. Andoainen 2-1 galdu ondoren, emaitza bera errepikatu eta gutxienez zortzi tantoren aldea lortu behar zuten bergararrek. Eta halaxe egin zuten Reyes Azkoitiaren pilotariek. Kadete mailan, Mikel Gallastegik eta Beñat Rezustak 22-18 irabazi zioten Andoaingo bikoteari. Partidu bikaina jokatu zuten etxeko ordezkariek; gazte mailan, Andoaingo bikotea 22-19 nagusitu zitzaien Haritz Rezustari eta Gorka Irizarri. Gauzak horrela, gutxienez 16 tanto egin behar zituzten senior mailako partiduan bisitariek. Baina, Eneko eta Ander Mugurutzak ez zieten aukerarik eman: 22-3.

Bergarako taldea familia bat dela ezin ukatu, Mugurutzarrak eta Rezustarrak lehengusuak dira-eta. Gallastegik eta Rezustak ezin izan dute asteburua borobildu: Zaramagakofinala galdu zuten zapatuan andoaindarren aurka, 22-12. Bestalde, *El conquistador del fin del mundo* saioari esker aurpegi ezaguna bilakatu den Eneko Mugurutzak neska ugari erakarri ditu frontoira. Hori gutxi balitz, arerioen lagunendako autografoak sinatu behar izan zituen egubakoitzean.

Bergarak Azkoitiaren aurka jokatuko du final-laurdeneko kanporaketa. Lehen hitzordua Azkoitian egubakoitzean, 22:00etan.



Mikel Gallastegi eta Beñat Rezusta (zutik) ezkerrean; Eneko eta Ander Mugurutza (erdian) eta Haritz Rezusta eta Gorka Irizar. J.A.

**ARRASATEK EZIN ATAUNEKIN**

"Ojo Bergararekin!" esan zigun Mauri Zubillaga arrasatearren entrenatzaileak. Haren ustetan txapelketako faboritoen artean dago Bergara. Zoritxarrez, arrasatearrak ez dira final-laurdenetan izango. Egubakoitzean, berriro ere, 2-1 galdu zuten Ataunen aurka. Ibai Bolinaga eta Iker Agirregabiria gazteek lortu zuten puntu bakarra, 2-22 irabazita.



ALMACENES ARRASATE

FAGOR, ASPES, EDESA eta MERKATUKO MARKARIK ONENAK.
Etxetresnetan sekulako eskaintzak!
**Orain erosi, eta ordaindu sei hilabetean interes barik.**

Eska ezazu sukalde eta horma-armairuen aurrekontua konpromisorik gabe!



1000 b/min
6 Kg
A+ Sailkapen energetikoa
GARBIGAILUA ALF-1106
310 € aspes
-105 € (Renove plana)
205 €



BERMEA 2 URTE
1000 b/min
7 Kg
A+ Sailkapen energetikoa
GARBIGAILUA AWO - 8011
305 € Whirlpool
-105 € (Renove plana)
200 €

pirolisis labea HP-7660 X + 3 fokoko indukzioa VI-3 TS









Kataide poligonoa 3 • Arrasate Tel.: 943 77 13 52 / 943 77 00 34 Faxa: 943 77 13 13
Ordutegia: 09:00-13:00 / 15:00-20:00 ZAPATU GOIZETAN ZABALIK

**SASKIBALOIA** > LAUKO FINALA

# Eskoriatzak ezin, lauko finalean onena izan den Erroibiderekin

ESKORIATZA
**59-47**
ERROIBIDE IRUN

**Eskoriatza** > Sanchez, Laborda, Carreras, Heriz, Alartzia, Mariñelarena, Usabiaga, Serrano, Exposito, Soriano, Ugalde, Sologaiztoa.

**Erroibide Irun** > Gartzia, Domingo, Saiz, Lopez, Sanz, Ventura, Gonzalez, Gartzia, Eizagirre, San Felipe, Iglesias.

**Laurdenetako emaitzak** > Lehenengo laurdena: 14-11. Bigarren laurdena: 31-23. Hirugarren laurdena: 44-32. Laugarren laurdena: 50-39.

**XABIER URTZELAI** > ESKORIATZA

Lauko finalak saskibaloi giroa eraman du asteburuan Intxaurtxuetara, senior mailako Gipuzkoako ligako emakumezko lau talde onenak aurrez aurre egon direlako. Eta, pronostiko guztiak beteta, Erroibide Irun izan da txapelduna, zapatuan Eskoriatza kanporatu zuen taldea (59-47).

Atzoko finalean Iruneko taldeak Cafes Aitona izan zuen aurrean, eta iruindarrek gogotik ordaindu zuten zapatuan eskoriatzarren aurrean egindako esfortzua. Aurreikusi baino parekatuago egon zen finala, Cafes Aitonak ondo estutu zuen-eta txapelketako faboritoa.

Bi minuturen faltan parean ziren markagailuan, baina Cafes Aitonak ez zuen jakin partiduko azken minutuak jokatzen, eta bost puntuko aldearekin Erroibide nagusitu zen (53-48).

**ESKORIATZAK DENA EMAN ZUEN**

Eskoriatzako neskak aurrean zein zeukaten ondo jakinda kantxaratu ziren zapatuan. Astebete lehenago aurkari bera izan zuten, Erroibide Irun, eta orduan egindako akatsak zuzendu gura zituzten. Harmailak jende askorekin, Eskoriatzak sekulako partidua egin zuen defentsan, baina erasoan makal jardun zuten, oso makal. Horren erakusle da azken bi laurdenetan kanpoko jaurtiketa bakarra ere ez zutela egin.

Lastima, Fernando Rasoren neskek talde faboritoaren erasoa agortzeko gaitasuna erakutsi zutelako, eta hori ez zen gutxi, baina partidua irabazteko hori baino askoz ere gehiago egin behar zuten.



Eskoriatzarrak baloiak ihes zelan egiten dien ikusten, ezintasun aurpegiarekin. IMANOL SORIANO

**Fernando Raso** > Eskoriatzako entrenatzailea

## "Defentsan bai, baina erasoan ez genuen asmatu"

**X.U.** > ESKORIATZA

**Hirugarren urtez jarraian Eskoriatza Lauko Finalera sailkatzeko gauza izan da, baina ezin izan du finalerditik aurrera egin.**

**Erroibide Irun taldearekin pronostikoak bete dira.**

Bai, bagenekien finalean talde indartsuena izango zela, eta alde horretatik ez da sorpresarik izan. Hori bai, ikusi da talde beteranoa izanda zapatuan gure aurkako partiduaren ondoren jokalariak ez direla behar den moduan errekuperatu, eta finalean zailtasunak izan dituzte.

**Txapelketa irabazi duenak utzi zintuzteten kanpoan. Min gutxiago egiten du horrek.**

Akaso bai. Min egiten diguna da ikusteak Erroibideren erasoa eteteko gauza izan ginela, baina gero erasoan huts larregi egin genituela. Presio lan izugarria egin genuen, eta euren joko antolatzaileak menperatu. Baina, gero saskiratzerik egiten ez bada, ezin da partidurik irabazi.

**Datorren denboraldia prestatzen hasi behar.**

Lehenago atseden hartuko dugu, baina lanean hasi beharko dugu gero.



GOIENKARIA



Zuri-moreak indartsu ibili ziren taula azpiko jokoan; jaurtiketa libretako hutsek egin zuten min. XABIER URTZELAI

**SASKIBALOIA** > LEHEN MAILAKO JAITSIERA FASEA

# Zapore gazia duen garaipena MUko mutilendako

MONDRAGON UNIBERTSITATEA
**89-86**
UPNA

**X.U.** > ARRASATE

UPNA taldea sailkapenean atzean uzteko MUk garaipena behar zuen, baina ez hori bakarrik, baita 5 puntu baino gehiagoko abantaila ere. Eta, Javi Zurbanoren mutilek lanak erdizka utzi zituzten zapatuan Iturripen, hiru puntuko aldeagatik hartu zutelako mendean talde nafarra. Orain, datorren astera itxaron behar.

Datorren astean jokatuko dute jaitsiera faseko azken partidua, eta kategoriari eusteko, MUk Bide Bide mendean hartzearekin batera, mirariaren zain egon behar du: Suelbat taldeak Iruñean UPNA mendean hartzea.

**JAURTIKETA LIBREETAN, TXARTO**

MUk eskura izan zuen UPNA mendean hartzeko aukera. Parean joan eta gero, zuri moreek minutu baten faltan beharrezko zuten abantaila eskuratu zuten 12-3ko partzialari esker (89-81). Eta hor, jaurtiketa libretan egindako sei hutsak erabakigarriak izan ziren UPNA markagailuan gerturatzeko (89-86).

**FUTBOLA** > PREFERENTEA

# Mundarrori irabazita, puntu batek banatzen ditu UDA eta hirugarren maila

## Geratzen diren hiru partiduetan nahikoa da Aretxabaletak puntu bakarra eskuratzea

## UDAk datorren astean du igotzeko aukera paregabea; nahikoa da Tolosaren zelaian berdintzea


Gordobilek eta Arenazak ateratako hasierako hamaikakoa, atzo. JOSETXO ARANTZABAL

**ARETXABALETA**
**2-1**
**ASTIGARRAGAKO MUNDARRO**

**Aretxabaleta** > Unda, Sanchez, Gomez, Ruben, Iturbe, Astola, Imanol (Eriko 66.min), Igartua, Espinosa (Oinatz 75.min), Lopez, Orueta (Uribetxebarria 84.min).

**Astig. Mundarro** > Amezketa, Lertxundi (Aduriz 55.min), Asier, Aizpuru, Alpin, Mikel (Padilla 11.min; Olabide 76. min), Loidi, Agustin (Moreiro 64.min), Andoni, Iraola, Aizpurua.

**Golak** > 1-0ekoa Imanolek (38.min). 2-0ekoa Espinosak (41. minutuan). 2-1ekoa penaltiz Padillak (43. minutuan).

**XABIER URTZELAI** > ARETXABALETA
Karanbola guztiak ez dira bete, baina oraingo jardunaldia ere paregabea izan da UDAk hirugarren mailara bidean beste aurrerapauso handi bat egin dezan.

Aretxabaletako mutilak igoera ospatzeko gutxienez beste astebete itxaron behar zutela jakinda zelairatu ziren domekan Ibarra futbol zelaira, ondo zekizkitelako zapatuko emaitzak –Hernanik galdu egin zuela, eta Tolosak irabazi–. Baina, inor ez zegoen horregatik arduratuta. Ardura handiagoa zuten Astigarragako Mundarro ze asmorekin zelairatuko zen jakiteko, atzean sartu eta eutsi, edo garaipenaren bila irten. Izan ere, bigarren aukera hori behar zuen UDAk.

Eta, Mundarroren alde esan behar da partidua irabaztera etorri zirela, nahiz eta jakin aurrean zutten taldea ligako onena dela.

**MINUTU ONAK**
Orokorrean ez zen partidu ona izan, baina lehenengo zatian erabateko lider itsura eman zuen UDAk. Baloiaren jabe, lerroak aurreratuta eta gol aukera onena sortu bitartean batera eta bestera.

Espinosak eman zuen abisuren bat edo beste –18. minutuan loratu zuen baloia, esaterako–, nahikoa Amezketa atezaina urduritzeko. Eta, 35. minutuan Iban Lopezek *dantzan* utzi zuen Astigarragakoen atea, zartako batek zutoina jo eta gero. Eta bitartean, Aretxabaletako atezain Asier Unda zelaian zenik ere ez.


Arenaza Alain agurtzen, eta bitartean Oinatz taldekieei txaloka, amaieran. J.A.

Halako jokaldi batean behar zuen UDAren golak, eta Espinosaren burugogorkeriagatik izan zen: baloia galdu eta berriro ere errekuperatu, dena egin zuen batean. Mundarroko atzelariek falta egin zioten, baina lurrera erori aurreko unean hanka luzatu eta pasea eman zion Imanoli, horrek markagailua estrena zezan (1-0). Eta, ondoren etorri ziren minutu eroenak. Hasteko, Espinosaren 2-0ekoa (42. min), atezainaren aurrean ondo asmatuta, eta ondoren Iturbek ustez egindako penaltia, Astigarragakoen alde: "Ez dakit epaileak zer ikusi duen, baina salto baino ez dut egin", zioen Aretxabaletako atzelariak partidu amaieran.

Ikusle moduan egotetik penalti bat geratu behar izatera, hala zegoen Unda, eta Padillak barrura jaurti zuen (2-1).

**HORTIK AURRERA, BEHERA**
Gol horrek min egin zion UDAri, baina ez markagailuko aldea txikitu zuelako. Astigarragakoak harrotu egin ziren, eta liderra estuasunetan jartzeko asmoarekin ekin zioten bigarren zatiari. Izan ere, eurek ere beharrezkoak zituzten puntuak, eta orduarako gutxi zuten galtzeko.

Aretxabaletak bigarren zatian atzera egin zuen. Atzera egin eta hegaletatik lehen zatian beste jokatzeari utzi, baina horretan Astigarragak izan zuen meritua, ondo egin zuelako presioa. Norgehiagokaren bila joatetik errentari eustera pasa ziren Arenazaren eta Gordobilen mutilak. Eta ez inork horrelakorik agindu zuelako, baizik eta berez, egoerak horretara eraman zituelako: "Berdinketaren beldurragatik-edo atzean sartu gara, eta azken minutuetan sufritu egin dugu, baina azkenean jokoak baino emaitzak balio zuen", adierazi zuen Igartuak.

Eta arrazoiarekin, presioa egitea ez delako golak egiteko nahikoa, eta hain zuzen ere arlo horretan Astigarragak gabezia handia erakutsi duelako aurten –20 gol baino ez dituzte egin–. Hala, UDAk beste pauso bat egin zuen atzo eta ia-ia eskura dute hirugarren maila. Puntu batera.

**PREFERENTEA** > HERNANI-ALOÑA MENDI

# Aloñak bigarren sailkatzeko hautagaitza garbia aurkeztu zuen Hernaniri irabazita (0-2)

## Axier Ugartek, lehenengo minutuan, eta Roberto Idigorasek egin zituzten Aloñaren golak

**X.U.** > BERGARA
Aloña Mendik emozioa jarri gura dio liga txapelketa amaierari, eta martxa horretan baita lortu ere. Bigarren postua gura dute, eta horretarako Hernani mendean hartu behar bada, aurrera. Zapatuko porrotarekin, hernaniarrek makalaldi ederra izan dute ibarreko taldeen kontra, eta dagoeneko ez dira UDArendako kontrario. Eta, zapatuan bistan geratu zen Aloña ere, orain momentuan, Hernani baino gehiago dela. Oñatiarrak topera joan ziren Zubipe futbol zelaira, zenbakiek bestelakorik esaten ez duten bitartean, bigarren postuaren bila. Eta, partidua hasi eta berehala denboraldi ederra egiten dabilen Axier Ugartek eman zuen lehenengo kolpea: baloia despistatu samar zelairatu ziren hernaniarrei lapurtu, eta barrura (0-1).

Bigarren zatian ere azkar ibili zen Ugarte, azkar beste baloi bat lapurtzeko eta Idigorasi pasea emateko. Eta Idigorasek ere barrura (0-2). Bi gol horiek eman zioten Aloñari garaipena, bi gol horiek eta talde moduan ondo egindako lanak.

Oñatiarrak gorputzaldi onean iritsi behar dira ligako azken txanpara, beste batzuk kale egiten hasi direnean.

**PREFERENTEA** > TRINTXERPE-MONDRA

# Sei gol jasota itzuli zen Mondra zapatuan Pasaiatik

**X.U.** > BERGARA
Mondrak 6-1 galdu zuen zapatuan Don Bosco futbol zelaian, eta asteburuan izan diren gainontzeko emaitzekin berriro ere arrisku postuetan murgildu da. Vasconiak ez du amore emateko asmorik, eta eskerrak UDAk ez duela inorekin zorretan geratu gura; joan den astean Mondrak egin zion mesedea, Hernaniren kontra berdinduta, eta zor hori atzo kitatu zuen Aretxabaletak.

Hala, datorren astean Euskaldunak lagun gutxi izango ditu Mojategin, hil ala biziko partidua izango da-eta.

**20 MINUTUTAN, LAU GOL**
Lehenengo zatian aurreratu zen Trintxerpe (2-0), eta bazirudien Keixik 50. minutuan faltaz egindako golak talde zurimorea berpiztuko zuela (2-1). Baina, txarto kokatuta eta presioa egiten txarto, 20 minututan lau gol jaso zituen Mondrak.



Arrasateko eta Soraluzeko jokalariak, zelai erdiaren jabe egiteko lehian, lehenengo zatian. IMANOL SORIANO

**FUTBOLA** > EMAKUMEZKOEN GIPUZKOAKO TXAPELKETA

# Mondra Gipuzkoako txapeldun!

MONDRA

**2-1**

SORALUZE

**Mondra** > Aldai, Etxabe, Moreno, Larrea, Da Costa, Modino, Beraza, Roa, Diaz, Lopez eta Roa. Ordezkoak: Paredes, Tena, Sanchez eta Gallastegi.

**Soraluze** > Egaña, Custino, Arizaga, L. Mariano, Gallastegi, Ugarte, Alonso, Berbois, Txopitea, Berraondo eta Rico. Ordezkoak: Lobato, Bideluze, De Castro, Lamariano.

**Golak** > 1-0. Maitane Roa, (13. min). 1-1. Aihnoa Alonso (42. min). 2-1. Vanessa Da Costa (74. min).

**XABIER URTZELAI** > BERGARA

Urte osoan zehar egindako lana borobildu zuten Mondrako neskek zapatuan, Ipintzako futbol zelaian Gipuzkoako Txapelketa eskuratuta. *Txisko*-ren neskek ez zuten kontrario makala izan aurrean, Soraluzeko neskek garesti saldu zutelako garaipena.

Arrasateko neskek bazekiten zelan min egin Soraluzeri: aurkariaren hasierako minutuetako bultzadari eutsi, eta ondoren kontraerasoan harrapatu. Zailena, aurrez pentsatutakoa betetzea izaten da, baina zuri-moreek 13 minutu baino ez zituzten behar izan Maitane Roak pase on bat jaso, Soraluzeren atea zaintzeko ardura zuen Egañari *dribling*-a egin eta ezker hankarekin baloia sareetara bultzatzeko (1-0).

**SORALUZE EZ ZEN KIKILDU**

Mondra markagailuan aurreratu izanak eragina izan zuen Soraluzeko neskengan, markagailuan atzetik derrigor egin behar zutelako aurrera. Minutu horietan izan zuen, hain zuzen, Arrasateko atezain Aldaik lan gehien, Soraluzekoak etengabe izan zirelako Mondraren ate inguruan, erasoan. Gol aukera horien artean, 42. minutuan asmatu zuen Soraluzeko Alonsok: Arrasateko atezaina aurreratuta ikusi eta baloia loratuta, barrura (1-1).

Atsedenaldira berdinduta, bigarren zatian hutsetik hasi ziren berriro bi taldeak. Joko baino emozio handiagoaz, Arrasateko Vanessa Da Costak gerora erabakigarria izango zen gola egin zuen (2-1), eta azken minutuetan larri ibili ziren Arrasatekoak abantailari eusteko; baina, hala ere, eutsi.

Orain, Mondrak beste erronka bat du aurrean: Araba eta Bizkaiaren kontra igoera fasea.

## emaitzak eta sailkapenak

PREFERENTE MAILA

**Sailkapena**

| | Puntuak | JP |
|---|---|---|
| 1. **Aretxabaleta** | **67** | 31 |
| 2. **Tolosa** | **58** | 31 |
| 3. **Pasaia** | **57** | 31 |
| 4. **Hernani** | **57** | 31 |
| 5. **Aloña Mendi** | **56** | 31 |
| 6. **Real Union** | **53** | 31 |
| 7. **Berio** | **50** | 31 |
| 8. **Trintxerpe** | **49** | 31 |
| 9. **Hondarribia** | **49** | 31 |
| 10. **Idiazabal** | **42** | 31 |
| 11. **Ondarroako Aur.** | **35** | 31 |
| 12. **Euskalduna** | **32** | 31 |
| 13. **Mondra** | **32** | 31 |
| 14. **Astig. Mundarro** | **30** | 31 |
| 15. **EHU Vasconia** | **30** | 31 |
| 16. **Anaitasuna** | **25** | 31 |
| 17. **Zumaiako** | **23** | 31 |
| 18. **Amaikak Bat** | **17** | 31 |

**Emaitzak**

| | |
|---|---|
| Hondarribia-Real Union | 2-0 |
| Ondarroako Aurrera-EHU Vasconia | 1-2 |
| Amaikak Bat-Pasaia | 0-3 |
| Zumaiako-Berio | 1-0 |
| Hernani-Aloña Mendi | 0-2 |
| Trintxerpe-Mondra | 6-2 |
| Euskalduna-Tolosa | 2-4 |
| Aretxabaleta-Astig. Mundarro | 2-1 |
| Anaitasuna-Idiazabal | 2-0 |

**Hurrengoak**

Hondarribia-Anaitasuna
Real Union-Ondarroako Aurrera
EHU Vasconia-Amaikak Bat
Pasaia-Zumaiako
Berio-Hernani
Aloña Mendi-Trintxerpe
Mondra-Euskalduna
Tolosa-Aretxabaleta
Astigarragako Mundarro-Idiazabal




interesgarria
PRO `09
Neurri bereziak
negozioentzat
Etxebizitza Aurrezkia
Interesak espezietan
›GO Etxebizitza Kontua
Ezagutu aparteko abantailak
Ezagutu
azken
abantailak
nominamulti
Estaldura bereziak BIZI, ETXE
eta AUTO Aseguruetan
400344 / 04-09
Estatuko 1. Entitatea
Zerbitzu Kalitatean
CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA

**ARRSATE**

# Atletismoa gertutik ezagutzeko aukera izan zuten gaztetxoek

**OHI BAINO GAZTETXO GUTXIAGO** Atletismoak ez du larregi erakartzen, eta asistentziak behera egin zuen nabarmen

**LAU PROBA** Korrika lasterketa, altuera eta luzera jauziak eta pisu jaurtiketa izan ziren zapatu goizeko probak

**EGURALDIA LAGUN** Goiza lainotuta hasi bazen ere laster nagusitu zen eguzkia; giro aparta egin zuen Mojategin

**JOKIN BEREZIARTUA** > ARRASATE

Zapatu goizean Atletismoa izan zen protagonista Mojategin. Futbola ez zen falta izan, Mondrako gaztetxoek partidua jokatu zuteneta aldi berean. Baina Leintz Eskola Kiroleko gaztetxoek, ia egunero egiten duten kirola albo batera utzi eta eurentzat arrotza den kirola gertutik ezagutzeko aukera izan zuten. Izan ere, atletismoa ez da ohiko kirola zapatu goizean Mojategira hurbildu ziren gaztetxo gehienendako. Hala, Arrasate Atletismo taldeko kideen eta betiko begiraleen laguntzaz, gaztetxoek ederki pasa zuten.

Bestalde, atletismoaren oinarrizko baloreak ere ikasi ahal izan zituzten. Norberaren gainditzea, finean; eta gaztetxoek ondo baino hobeto ulertu zuten ikasgaia: euren markak hausten saiatu ziren, gogo biziz.

**ATLETISMOAREN PROBA KLASIKOAK**

Lau proba antolatu ziren, atletismoko proba klasikoenak direnak: korrika lasterketa –bi lasterketa mota: 60 metro eta 300 metro–, pisu jaurtiketa eta luzera eta altuera jauziak. Haurrek, oro har, altuera jauziarekin gozatu zuten gehien.

Atletismoa azken xehetasuneraino neurtzen den kirola da. Eta horregatik eta oso indibiduala delako, muturreko lehiakortasun itxura har dezake elite mailan. Hala ere, Mojategin laguntasun giroa izan zen nagusi. Hori bai, galtzea ez zaio inori gustatzen, eta laguntasun giroan, baina haurrak erruz saiatu ziren proba guztiak ahalik eta ondoen egiteko.



J.B.

**Otxandio.** Iratik, Neikek, Leirek, Anek, Paulak, Mariak, Pilarrek, Lorek eta Amaiak osatzen dute taldea.



J.B.

**Arrasate Herri Eskola 3.** Ezkerretik eskuinera eta goitik behera: Mikel, Pello, Ivan, Ibai, Julen eta Oihan.



J.B.

**Arrasate H.E. 4.** Jon, Edu, Jon, Ibai, Unai, Aitor, Aitor, Mikel, Liher, Beñat, Mikel, Kevin, Eneko, Iker, Ander, Mikel eta Aitor.



ARGAZKILARIA

**Almen-Santa Teresa.** Maider, Naiara, Jone, Lierni, Ainhoa, Eider, Leire, Alaitz, Miren, Ane, June, Nerea eta Ainitze.



**Oihan eta Ibai**
Arrasate Herri Eskola 3

Ederki ibili ziren Oihan eta Ibai Mojategiko atletismo pistan; 60 metroak 11 segundo baino gutxiagotan egitea lortu zuten. Zapatuko proben artean korrika aritu ziren gusturen. Euren kirol gustukoena, baina futbola da.



**Jorge eta Jon**
Almen 3

Atletismoa gutxitan praktikatzen dute Jorge eta Jonek, baina aurreiritziak gainditu eta gogoz izerditu zuten atletismo pistan. Zapatuan egindako proben artean altuera-jauzia izan zen gehien gustatu zitzaiena.



**Julen eta Aitor**
Kurtzebarri

Euren taldeko kide gehienak agertu ez arren, Julen eta Aitorrek ondo baino hobeto bete zuten Kurtzebarriren ordezkaritza. Gainera, lagun berriak egiteko aukera paregabea izan zuten. Altuera-jauzian ibili ziren gusturen.



**Aitor eta Ander**
Arrasate Herri Eskola 4

Euren kirol gustukoena izan ez arren, probak ahalik eta ondoen egiten saiatu ziren Aitor eta Ander. Altuera-jauzia izan zen euren proba gustukoena. Euren kirola, baina, futbola da; eta bigarren maila batean, saskibaloia.



**Gorka eta Iñaki**
Santa Teresa

Futbola maite badute ere -oso argi daukate futbola dela euren kirola-, ondo moldatu ziren Gorka eta Iñaki Mojategiko pistan. Bientzat proba politena altuera-jauzia izan zen. Baina 60 metro eta 300 metroko lasterketan ere asko gozatu zuten.

Xabier Arantzeta > Txirrindularia

# "Badakit ez naizela txirrindularitzaz biziko, baina gustuko dudalako nabil"

ARANTZAZU EZKIBEL > ANTZUOLA

**Gazte mailan bigarren denboraldia du Xabier Arantzeta antzuolarrak. Bergarako Lokatza taldeko txirrindulariak Lazkaomendin garaipena lortu zuen joan zen astean. "Gauzak ondo" egiten dabilen seinale.**



Xabier Arantzeta Bergarako Lokatza-Sumofic taldeko mailotarekin. JOSETXO ARANTZABAL

**Lazkaomendiko 23. edizioko lasterketa irabazi berri duzu. Zela ikusi zenuen zure burua?**

Lasterketa nahiko laua izan zen, Alegira hiru joan-etorrirekin. Larraitz jaitsitakoan, aurreko taldekoek ihes egitea lortu genuen. Lazkaomendi azpira ihes egindako taldean iritsi nintzen; han, taldetik irten eta helmugara bakarrik iristea lortu nuen.

Lasterketa guztian ondo sentitu nintzen, horregatik erabaki nuen ihes eginda bakarrik iristea helmugara.

**Lazkaomendikoa, baina, bi eguneko proba izan zen. Bigarren egunekoa kontuan hartuta, zela geratu zinen sailkapenean?**

Mendiko kriteriuma izan zen; aurten egin da lehenengo aldiz. Denbora kontuan hartu beharrean puntuak hartu zituzten kontuan. Lehenengo egunean irabazi egin nuenez, 12 puntu lortu nituen, baina bigarrenean 17. postuan geratu nintzen. Hortaz, hirugarren tokian geratu nintzen sailkapen orokorrean.

**Nola planteatu duzu aurtengo denboraldia?**

Orain arte nahiko gogor ibili naiz; orain, baina, deskantsua hartuko dut azterketa garaia pasa arte. Gero, denboraldi bukaeran berriro gogor hartuko dut, udazkeneko kriteriumerako sasoitsu iristeko.

**Aurrera begira zela ikusten duzu zure burua txirrindularitzan?**

Nik ez dut horretan pentsatzen. Badakit ez naizela txirrindularitzatik biziko, gustatzen zaidalako nabil hemen. Datorren urtean jarraituko dut, afizionatu maila zelakoa den ikusteko. Ikasketak eta kirola nola uztartzen ditudan ikusita, aurrera jarraitu edo ez ikusiko dut.

**Txirrindularitzaz bizitzea oso zaila da?**

Bai, hala da. Irteten direnak dira oso onak direlako da. Gaur egun ez daude talde asko, hortaz hor daudenak gehien nabarmentzen direnak dira. Gaztetan nabarmendu baino, gero eta beranduago nabarmendu hobe da. Oso ona izan behar duzu. Ez bakarrik Euskadi mailan, baita Espainia eta Europa mailan ere.

**Nolako maila dago gazte mailan?**

Aurreko urtean oso maila ona zegoen, eta esango nuke aurten maila handiagoa dagoela. Hainbat txirrindulari daude maila dominatzen dutenak; hau da ez dago dominatzaile bakarra. Sei edo zortzi daude lasterketak samur irabaz dezaketenak.

**Eta zu non zaude?**

Nik uste dut momentu honetan badaukadala aukerak irabazteko, baina ez naiz punta-puntakoa, zerbait beherago nago.

**Dauden lasterketen artean, zein da irabaztea gustatuko litzaizukeena?**

Politena Gipuzkoako Klasika da, Legazpin jokatu dena. Espainiako selekzio denak etortzen dira, baita Frantziako batzuk, Bizkaikoa eta Gipuzkoako talde guztiak ere. Hortaz, jende askoko lasterketa izaten da.

Ikus dezakezu Euskadi mailan, eta baita Espainia mailan ere ze mailatan zauden. Gainera, motibatuta zaude, badakizulako jende ona datorrela. Bestalde, Paris-Roubaix bat irabaztea ametsa izango litzateke.

**"Momentu honetan lasterketak irabazteko moduan nago, baina ez punta-puntan"**

**"Aitaitaren hiletara eramateko loreak eman zidan lasterketa irabazi zuen lagunak"**

**Urte hauetan, zein izan da momentu onena eta zein txarrena?**

Momentu ona izan zen, adibidez, Lazkaomendin irabazi nuena. Batzutan zalantza izaten duzu gauzak ondo egiten dituzun edo ez; eta garaipen batek erakusten dizu ondo zabiltzala. Txarrenen artean, ez nuke jakingo zer esan; izan ere, oraindik ez dut momentu txarrik bizi. Batzutan, nekatuta eta lan mordoarekin zabiltzanean, bizikleta alde batera bota eta etxean geratzeko gogoa ematen du.

**Ziklista bezala, zeintzuk dira zure alde onak eta txarrak?**

Alde ona da karakterra daukadala. Ezin naiz pelotoian geldi egon; ihesaldi bat lortutakoan ordena jartzea gustatzen zait. Norbait ezer egin barik badago, ni naiz lehena zerbait esaten. Batzutan nire buruaz harrituta geratzen naiz.

Txarrena, ez dudala ikusten lasterketa zela doan: antolatu, eta momentua ikusi, adibidez.

**Nola ikusten duzu ziklismoa?**

Nik uste dut oso zigortuta dagoen kirola dela. Dopping kasu bat irteten denean izugarrizko oihartzuna ematen zaio; baina beste kirol batean ematen bada positiboa, ez dute ezer esaten.

**Lokatza taldea lan ona egiten dabil gazteekin: emaitzak onak lortzen zabiltzate.**

Bai, urte mordoa dabil Lokatza gazteekin lanean. Gainera, azkeneko urteetan ikusi dut hobera egin dutela; jende gehiago dago kadete eta gazte mailakoei laguntzeko. Talde harreman polita dago.

Bestalde, jendea urte mordoa dabil lanean, lasterketak antolatzen. Lan asko egiten dute.

**Orain dela gutxi, detaile polita izan zuen ziklista batek zurekin.**

Bai, aitaita hil zitzaidan, eta lasterketa irabazi zuen Haritz Orbeak lore-sorta oparitu zidan hiletara eramateko. Lasterketa barruan aurkariak gara, baina kanpoan oso harreman ona daukagu. Emozio handia egin zidan detailea izan zen.



**> KANTARI**
Ikuskizun koloretsua eta ikusleen harrera ezin-hobea, karaoke ikuskizunean > 30-31



**> CHROME HOOF**
Londresko musika talde ezohikoak ikuskizun oso berezia egin zuen Arrasateko gaztetxean > 32



**> LORI MEYERS**
Granadako taldeak Bergarako Jam aretoko ikusleak liluratu zituen haren pop-rockarekin > 32

# Elgeta, asteburuan magia trukuz beteta

Egubakoitzean ikuskizun berritzailea eskaini zuen Gaetan Bloom magoak

Antolatzaileek diote koska bat gora egin duela Magia Mostrak

Zapatuko gala ostean eta domekan kalean bertatik bertara egin zizkioten magoek trukuak jendeari

**IRATI AGIRREAZALDEGI** > ELGETA
Elgeta, asteburuan magiaz beteta. Magia Mostraren bosgarren edizioa egin dute, inoiz baino internazionalagoa eta koska bat gora egin duena antolatzaileen ustez.

Egubakoitzean Gaetan Bloomek Elgetara gerturatutako zale guztiak harritzea lortu zuen ezohiko trukuekin. Fruituekin zein mikrofonoarekin egindako jokoak bereziak izan ziren oso.

Ikuskizun horren ostean, magia gala zapatuan; magoak bata bestearen atzetik tabladuan. Ikuskizunaren gidari Karim mago asturiarra. Egunkari, karta eta globoekin egindako trukuak txisteekin jantziz entzuleak harritu-ta ez ezik barrez utzi zituena.

Aurkezpenaren ostean, Juan Mayoral Leongo magoak hartu zuen tokia. Tabladuan etxetxo bat eta lanpara eta argazkia mahaitxo baten gainean. Kandela baten suziria alde batetik bestera mugituz, lanparatxoa piztu eta argazkia desagertaraziz aho zabalik utzi zituen ikusleak.

**MALABAREAK ETA ZIRKOA**
Karta jokoan jardun zuen publiko artetik taula gainera igoarazitako bi lagunekin Karimek Sebastien Dethise Belgikako magoa aurkeztu aurretik. Magia eta malabareak nahasiz. Pilotak eskutik eskura mugituz, boteak emanez eta desagerraraziz egin zituen esku jokoak eta usoak eta ahatea ere ezerezetik atera zituen.

Karimen itzal txinatar jokoak emakumezko mago bakarra aurkezteko; Jane, txinatarra bera. Zirkoa eta magia uztartuz jantzi bereziak soinean hutsetik koloretako paperak agertaraziz eta zapiekin jolasean jardun zuen, amaieran taula gaineko zuhaitzeko hostoak aireratu arte.



Gaetan Bloom mago frantziarrak neska-mutikoen laguntza izan zuen ikuskizun berritzailean. JOSETXO ARANTZABAL



Itzal txinatarrak Karim magoaren eskutik. J. A.



Zaborrarekin egin zuen Xabier Tapiasek magia. J. A.



Jane txinatarrak zirkoa eta magia uztartu zituen. J. A.



Sebastien Dethisek ahatea atera zuen ezerezetik. J. A.

MAGIA KALEAN

## Trukuak bertatik bertara ikusteko aukera

**Domekan magia Espaloitik kalera, eta jendea inguruko herrietatik Elgeta aldera. Familia giroan plazan hiru magok umeei egindako trukuak ikusi zituzten batzuek, kartekin egindakoak, umeendako bereziki gertatuak...; eta tabernetan ere ibili ziren magoak batetik bestera euren erakustaldiak eginez. Beti ere, trukuak bertatik bertara ikusteak sortzen duen zirrara berezi horretaz baliatu ziren magia gustagarri egiteko eta askotariko publikoa eurenganatzeko. Dena dela nor ez gerturatu hamar euroko biletetik 50 eurokoa ateratzeko gai den magoarengana? Trukuak truku magiak Elgetari berriz ere baietz egin kuku.**

Jende artetik berriz ere laguntzaile bat atera eta txisteetaz baliatuz haren jaka hautsontzitzat erabili zuen, baina erre gabe.

Hautsontzitik baino zabor ontzitik ateratako botila, kartoi, paper... baliatu zituen Xabi Tapias mago kataluniarrak magia poetikoa egiteko. Ondakin guztiak elkartuz panpin moduko bat osatu zuen eta baita mugitzea lortu ere galaren amaieran. Nola? Ba magia erabiliz.

**IKUSLEEN SARIA DATORREN ASTEAN**
Galaren amaieran ikusleek euren botoak emateko aukera izan zuten eta datorren astean jakinaraziko dute antolatzaileek ikusleen usten zein izan den aurtengo mago onena.

Egubakoitzean berrikuntza nagusi, zapatuan bost magoren ikuskizuna ziztu batean, baina gozagarri eta domekan magia esku-eskura. Antolatzaileak gustura eta ikusleak zer esanik ez.

Kantari 2
Aretxabaletan






















# Arkupe, kantarien erakusleiho

**IRATI AGIRREAZALDEGI** > ARETXABALETA

*Gu ere kantari gabiltza*. Hori da GOITBko Kantari saioaren leloa edo giltza. Debagoienean herriz herri dihardute kantari gaztetxoek, eta aste bukaeran aretxabaletarren eta eskoriatzarren txanda izan da.

Arkupe kultura etxean erakutsi dute lagunen eta etxekoen aurrean neska-mutikoek zenbat entseatu duten eta zein ondo ikasi dituzten saiorako kantuak eta dantzak.

Urduri batzuek, ikusioz besteak, kanturako eta dantzarako gertu. Grabaketarako egoki prestatutako eskenatokira igo ziren talde guztiak banan-banan. Amaia Txintxurretaren aurkezpenen ostean, erritmo eta tonu askotariko kantuak entzun zituzten neska-mutikoen ahotik lagunek, gurasoek, anai-arrebek zein aiton-amonek. Entzun ez ezik baita euren etxekoei eta gertukoei txaloz eta publikotik dantza apur bat eginez lagundu ere.

**ASKOTARIKO ERRITMOAK AUKERAN**

Rock-and-rolla, trikitixa, pailazoen abestiak, baladak... Zarama, Gozategi, Pirritx eta Porrotx, Olatz Zugasti... Nahi beste aukeran, denek kantatzeko eran.

Amaieran denak taula gainean. Aurkezlearekin Kantariko abestia eta eskenatokiko globoak airean.

Aretxabaletatik Arrasaterako pausoa. Ekainaren 6an eta 7an Amaia Antzokian ikusi ahal izango ditugu neska-mutilak, ibarreko kantari abilak.



Robot-dantzarien koreografiek, abeslarien jarrerak eta musikarien jantziek ikuskizuna bihurtu zuten. JOSETXO ARANTZABAL

**MUSIKA** > CHROME HOOF

# Etorkizunaren soinu-ispilua

**NON:** Arrasateko gaztetxean.
**EGUNA:** Egubakoitza, maiatzak 8.
**ESTILOA:** Elektro, soul, metal, tribal...
**IRAUPENA:** Ordu bat.

**IKER BARANDIARAN** > ARRASATE

Ez dut ukatuko, gustuko dut Aldundiak orain dela urte asko sortu eta azken urteotan Oñatira eta orain Arrasatera kontzertu onak eta merkeak eramaten dituen Gaztemaniak programa. Hala, horrek, Udalak eta Arrasateko gaztetxeak lortu zuten elkarlanean Londresko Chrome Hoof taldeak Espainiako Estatuan egindako bi emanaldietatik bat Debagoienean izatea.

Gaztetxea areto txukuna da kontzertuak egiteko: leku dezente dago eta ondo ikusi eta entzun egiten da. Zoritxarrez, ez zen jende asko elkartu, baina han geundenon artean jakin-mina zen nagusi. 22:30ak jotzeko ziren plastikozko monoz jantzitako bi *dantzari* agertoki alboetara igo zirenean. Haien robot mugimenduekin eta programatutako soinuekin emanaldia hasi, eta agertokia musikariz betetzen joan zen: baxua, gitarra, bateria, biolina, perkusioa, tronpeta eta bi abeslari.

**BI ANAIEN INDAR BATUKETA**

Zaila da han ikusi eta entzundakoa estilo zehatzetan mugatzea, joera eta tendentzia asko nahasten dituztelako. Programatutako oinarrien gainetik, Leo Smeeren (Cathedraleko musikari ohia) baxua nabarmentzen zen askotan, kolpe siku eta jokoak tartekatuz; are gehiago, horri esker kantuek funky ukitua hartu eta batzuetan Primus gogora ekarri ziguten.

Horrez gain, nahiz eta bi abeslari beltzaranen ahotsak nahiko baxu zeuden -beste instrumentu baten parera, protagonismoa hartu barik– , batzuetan erritmo tribalekin lagunduta Afrikako doinuen aztarnak ere antzeman zitezkeen.

Disco musikaren eta soularen arteko ñabardurak ere oso presente egon ziren hainbat kantutan. Gerora, baina, emanaldi erdian-edo, erritmo eta gitarrak gogortu zituzten; orduan agerian gelditu zen Smee anaien –taldeko sortzaileen– indar eta tendentzien batuketa argiena: giza pultsua zuten erritmo bizkor eta ia metaleroak, dantzagarriak baztuetan. Eta horri gehituta, biolinaren intentsitate igoerak eta erritmo apurketak, doom metalaren oso urruneko presentzia eta elektronikaren erabilera agerikoagoa, besteak beste.

**ESZENARATZE EZOHIKOA**

Bestalde, eszenaratzea oso bitxia izan zen: taldekideak Erdi Aroko kaletar eta futurista bitarteko txanodun arropa batzuk jantzita, serio-serio, ia jendeari erreparatu barik; bi abeslari xuxurlari, etniko eta misteriotsu; eta robot itxurako bi dantzari etengabe koreografiak egiten.

**MUSIKA** > LORI MEYERS

# Pop-rock dotorea baino gehiago

**NON:** Bergarako Jam aretoan.
**EGUNA:** Zapatua, maiatzak 9.
**ZENBAT JENDE:** 200 lagun inguru.
**IRAUPENA:** Ordu eta laurden.

**EDU MENDIBIL** > BERGARA

Krisiak musikari eragin dio? Egunkarietako kultura agendari erreparatuta, ez behintzat. Kontzertuak non-nahi daude eta Debagoieneko eskaintza ere ez da makala. Asteburuan hitzordu ugari izan ditugu, interesgarrienetako bat zapatuan Jam aretoan.

Orain dela pare bat aste Lagartija Nick egon baziren Bergarako aretoan, haien herrikide diren Lori Meyers eta Elastic Band taldeek hartu zieten lekukoa zapatuan. Uste baino jende gutxiago elkartu zen Jamen, baina han bertaratuek kontzertu labur, baina dotore batekin gozatu ahal izan zuten.

**SEI LAGUN ESZENATOKIAN**

Kontzertua hasi eta berehala taldeko liderra den Antonio Lopez *Noni*-k argi utzi zuen *jolaserako* gogoa zuela. Eta berehala *kutsatu* zituen taldeko gainerako kideak. Talde sendoa da: hiru gitarra, baxua, teklatuak eta bi bateria (!).

*Cronolánea* azken diskoko kantuak izan ziren kontzertuaren ardatza eta andaluziarrek argi utzi zuten hamar urteotan egindako ibilbideak heldutasun puntua eman diela. Kantu dotoreak, dantzagarriak, letra ederrez lagundutakoak jo zituzten Bergaran: *Luces de neón, Luciérnagas y mariposas, Sin compasión, Cúmulo de despropósitos, Transiberiano, El secreto mejor guardado, Tokio ya no nos quiere*... Alejandro gitarrak (eta hainbat ikuslek) hainbat kantutan *Noni*-ri lagundu zioten ahotsetan, kantu lasaiak eta biziagoak *(Un mundo por delante, Alta fidelidad*) tartekatuz. Deluxerekin gertatzen den/zen bezala, hitzek primeran laguntzen dute musika.

Amaieran bi bis eskaini zituzten eta lehenbiziko diskoko (*Viaje de estudios*) kantu batekin agurtu ziren Granadakoak, pop-rock dotorearen arrastoa utziz, haien zaleak asebetez. Kontzertu laburra, trinkoa, bizia, ederra izan zen zapatu gauekoa.



Antonio Lopez *Noni*, Lori Meyers-eko kantaria, zapatuan, Jamen. J.A.



# Baita zu ere.

**Zu ere GOIENKARIA irakurtzen ari zara.**
Zuk eta beste 39.000 lagunek baino gehiagok irakurtzen dute astero,
CIESek emandako datu berrien arabera.
Eskerrik asko, irakurle guztioi.

**> GOIENKARIA da Debagoienean gehien irakurtzen den hedabidea.**
**> Debagoiendarren %63k astero irakurtzen dute GOIENKARIA.**

Goienkaria



**Bergara.** Neska gaztea garbitasun lanak egin edo pertsona nagusiak zaintzeko gertu. Etxean bertan lo egiteko. 617 29 49 81

**Bergara.** Emakume arduratsua eta esperientziaduna nagusiak edo umeak zaintzeko gertu. 639 94 48 65

**Bergara.** Ingeles eta frantseseko itzulpenak egiten ditut. Ahoz zein idatziz. 654 94 87 26

**Bergara.** Mutil gaztea eraikuntzan edo autoa behar den beste edozein lanetan lan egiteko gertu. 696 48 42 50

**Bergara.** Mutil gaztea edozein lan egiteko gertu. Gidabaimenarekin. 696 48 42 50

**Deba.** Emakume euskalduna hospitalean jendea orduka zaintzeko prest. Telefono zenbakia 665741866. Marian.

**Debagoiena.** Mutila lanerako gertu. 685 70 76 25

**Debagoiena.** Neska euskalduna gertu tabernak, eskailerak edo elkarteak garbitzeko edota sukalde baten lan egiteko. Esperientziaduna. 943 08 18 13 edo 635 70 07 92

**Debagoiena.** Neska euskalduna prest edozein lan egiteko. Deitu 647 87 28 31 telefonora.

**Debagoiena.** Lan bila nabil. Garbiketa lanak egiteko, helduak edo umeak zaintzeko... Deitu 679 98 37 47 zenbakira.

**Debagoiena.** Esperientziadun emakumea nagusiak zaindu edo etxeko lanak egiteko gertu. Erreferentziak eta legezko paperak dauzkat. Etxean bertan bizi izaten ere lan egingo nuke. 686 52 15 98

**Debagoiena.** Emakumea lanerako gertu. Adinekoak zaintzen edo garbiketa lanetan jarduteko prest. 649 70 51 74

**Debagoiena.** Sukaldean edo nagusi zein umeak zaintzen lan egingo nuke. Etxean bertan lo egiteko gertu. 676 73 90 05

**Debagoiena.** Sukaldaritza, garbiketa edota nagusiak zaintzen lan egingo nuke. 630 20 12 03

**Debagoiena.** Pertsona nagusiak zainduko nituzke. Esperientzia eta erreferentziak ditut. 627 21 08 93

**Debagoiena.** Garbiketak egin edo nagusiak zainduko nituzke, orduka. 679 06 12 99

**Debagoiena.** Pertsona nagusien eta haurren zaintzarako gertu egongo nintzateke, ahal bada orduka lan eginez. Maria. 667 20 56 29

**Debagoiena.** Etxeko lanak egin edo garbitzen arituko nintzateke. Socorro Mora. 627 14 63 79 edo 943 25 07 53

**Debagoiena.** Mutila gertu zerbitzari lanetarako. Egunean bost orduz. Ordutegi malgua. 943 71 21 15 edo 679 58 41 92

**Debagoiena.** Mutila gertu zerbitzari, sukalde laguntzaile edo nagusiak zaintzen lan egiteko. 672 25 92 20

**Debagoiena.** Mutila gertu tabernari edo bestelako lanetan aritzeko: garbiketan, baserrian... 634 84 11 72

**Debagoiena.** Mutil gaztea edozein lan egiteko gertu. 628 93 79 39

